

**ARABAKO
ERABERRIKUNTZA
INDUSTRIALDEA AB -
CENTRO DE EMPRESAS E
INNOVACIÓN DE ÁLAVA
S.A.REN DELITUEN
PREBENTZIORAKO
ESKULIBURUA**



Edukia

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

- SARRERA. ESKULIBURUAREN DESKRIBAPENA. ..¡Error! Marcador no definido.
1. ETIKA ETA JOKABIDE KODEA¡Error! Marcador no definido.
 2. DELITUEN PREBENTZIORAKO ESKULIBURUA ..¡Error! Marcador no definido.
 3. ETIKA BETETZEAREN BATZORDEA¡Error! Marcador no definido.
 4. KANAL ETIKOA.....¡Error! Marcador no definido.
 5. BIC ARABAKO PERTSONEN ARTEAN DELITUEN PREBENTZIORAKO ESKULIBURUAREN ETA ETIKA ETA JOKABIDE KODEAREN INGURUKO TREBAKUNTZA ETA SUSTAPEN-HEDAPENA, SUSTAPENA, TREBAKUNTZA, INFORMAZIOA ETA DIFUSIOA.....¡Error! Marcador no definido.
 6. ESKULIBURUA EDO ETIKA ETA JOKABIDE KODEA BETETZEN EZ BADIRA APLIKAGARRIA DEN DIZIPLINA-SISTEMA.....¡Error! Marcador no definido.

II. KAPITULUA. ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEA AB - CENTRO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE ÁLAVA S.A. - BIC ARABA-K DUEN ERANTZUKIZUN PENALAREN ARAUBIDEA

1. ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEA AB-K DUEN ERANTZUKIZUN PENALAREN EDUKIA.....¡Error! Marcador no definido.
2. PERTSONA JURIDIKOAREN ERANTZUKIZUN PENALA SOR DEZAKETEN DELITUAK¡Error! Marcador no definido.
3. ERANTZUKIZUN PENALA SAIHESTEKO EDO ARINTZEKO MEKANISMOAK¡Error! Marcador no definido.
4. ESKULIBURUA INPLEMENTATZEA¡Error! Marcador no definido.

III. KAPITULUA. ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEA AB - CENTRO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE ÁLAVA S.A. -BIC ARABA-REN EGITURA

1. BIC ARABAREN EGITURA¡Error! Marcador no definido.

IV. KAPITULUA. ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEA AB - CENTRO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE ÁLAVA S.A. -BIC ARABA-REN POLITIKAK, ARAUAK ETA PROZEDURAK

1. BIC ARABAREN JARDUERA.....¡Error! Marcador no definido.
2. ARRISKUEN KONTROLA¡Error! Marcador no definido.

3. DELITUAK ETA JARDUERA-POLITIKAK ¡Error! Marcador no definido.

V. KAPITULUA. ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEA AB - CENTRO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE ÁLAVA S.A. - BIC ARABA-REN ETIKA ETA JOKABIDE KODEA

1. HELBURUA ¡Error! Marcador no definido.

2. APLIKAZIO-EREMUA..... ¡Error! Marcador no definido.

3. ETIKA ETA JOKABIDE KODEAREN IZAERA ¡Error! Marcador no definido.

4. BALOREAK ¡Error! Marcador no definido.

5. PRINTZIPIO OROKORRAK ¡Error! Marcador no definido.

6. BALORE ETA PRINTZIPIO DEMOKRATIKO EKIKO ERRESPEZEA ¡Error! Marcador no definido.

7. BIC ARABAKO PERTSONEN OSOTASUN, INPARTZIALTASUN ETA OBJEKTIBOTASUNAREN INGURUKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK ¡Error! Marcador no definido.

8. BIKAIN TASUNAREKIN LOTURAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK..... ¡Error! Marcador no definido.

9. LIDERGOAREKIN LOTUTAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK. ¡Error! Marcador no definido.

10. BERRIKUNTZAREKIN LOTUTAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK. ¡Error! Marcador no definido.

11. BIC ARABAKO PERTSONEK EUREN KARGUETAN DIREN BITARTEAN JARDUERA PUBLIKO EDO PRIBATUEKIN IZAN DITZAKETEN INTERES-GATAZKAK SAIHESTEAREKIN, ZINTZOTASUNAREKIN, INTERES SUBJEKTIBO EZAREKIN LOTUTAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK.

12. ERAKUNDE-ERRESPEZUAREKIN ETA ERRESPEZU PERTSONALAREKIN LOTUTAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK..... ¡Error! Marcador no definido.

13. GARDENTASUNAREKIN ETA GOBERNU ONAREKIN LOTUTAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK. ¡Error! Marcador no definido.

14. KUDEAKETAREKIKO ARDURAREKIN LOTURAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK ¡Error! Marcador no definido.

15. EREDUGARRITASUNAREKIN ETA KANPOKO BESTE ADIERAZPEN BATZUEKIN LOTUTAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK..... ¡Error! Marcador no definido.

16. ETIKA ETA JOKABIDE KODEA BETETZEA ¡Error! Marcador no definido.

17. KODEA ZABALTZEA..... ¡Error! Marcador no definido.

18. NORBERAK BERE EGITEA..... ¡Error! Marcador no definido.

VI. KAPITULUA. ESKULIBURUA BERRIKUSTEA -

1. ESKULIBURUA BERRIKUSTEA ¡Error! Marcador no definido.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

SARRERA. ESKULIBURUAREN DESKRIBAPENA.

Ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoak, Zigor Kodearen 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, aldatu duenak, lehendabizi berariaz arautu zuen pertsona juridikoek duten erantzukizun penala euren izenean ordezkariak, izatezko zein zuzenbidezko administratzaileak, langileak edota enplegatuak egiten dituzten delituengatik.

Zigor Kodearen 2015eko Erreformatik —2015eko uztailaren 1ean sartu zen indarrean— zenbait berritasun sartu zituen, besteak beste, ondokoa: pertsona juridikoarentzat badirela zenbait aringarri eta salbuesle, eta delituen prebentziorako ereduak edo programak erantzukizun penaletatik salbuesteko ezinbesteko alderdi direla.

Arabako Eraberrikuntza Industrialdea AB- Centro de Empresas e Innovación de Álava, S.A.k – aurrerantzean BIC ARABA- gain hartu duen erantzukizun sozial korporatiboaren programaren jarraipen gisa —eta horretarako, Etika eta Jokabide Kodea onartu eta inplementatu du, 2012ko irailaren 20an Administrazio Kontseiluak onetsitakoa—, enpresaren araubide-eredua egokitzeko beharra du delituen prebentzioari dagokionez legeetan egin diren aldaketei erantzutearren. Hori dela eta, BIC ARABAKO zuzendaritza-taldeak proposatuta, Administrazio Kontseiluari Delituen Prebentziorako Eredu hau proposatzen zaio onetsi dezan. Helburu bakarra, BIC ARABAK jarduerak gauzatzen dituenean osotasunarekin eta profesionaltasunarekin duen konpromisoa dela-eta beste aurrerapauso bat ematea da, erantzukizun Sozial Korporatiboaren arloan aitzindaria dela bermatzeko.

Delituen Prebentziorako Eskuliburua egitearen helburua da konpainiaren arau-eta prozedura-egitura zehatz-mehatz berrikustea, Zigor Kodearen erreformatik zigor arloan enpresei eskatzen dizkien eskakizunetara egokitzeko; horretarako, proposatzen diren barneko hobekuntzak egingo dira.

Horrez gain, 2015eko erreformatik exijitutakoarekin bat etorritik, zehazki aztertu dira zer arrisku penal egon daitezkeen BIC ARABAREN negozio-arloetan eta

SPRI taldean duen kokapena, eta BIC ARABAN gerta daitezkeen arauen ez-betetze arrisku guztiak gain hartzen saiatu da.

Bestalde, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2016 zirkularrak —delituen prebentziorako programa bat finkatzearekin atxikita dagoen abiapuntua, eta horren efikazia ikus daiteke prozedura penal hipotetiko batean— dio Estatuko Fiskaltza Nagusia kezkatuta dagoela Compliance eredu estetiko hutsengatik, zigor penala saihesteko helbururekin baino ez baitira egituratu. Hori dela eta, Prebentziorako Eredu eraginkorra proposatzearen, betetzearen aldeko kultur oso bat egituratu egin beharko da, bai ikuspuntu ekonomikotik bai antolaketa-ikuspuntutik; hots, ez da nahikoa arauak erreformaren eskakizunetara egokitzearekin, enpresaren kultura egokitu behar da aipatutako arauen eskakizunetara, enpresa osoak (enplegatuak, hornitzaileak, bezeroak, bitarteko kargudunak eta zuzendaritza kargudunak eta Administrazio Kontseiluak) beteko dituen arauak eta prozedurak ezarri beharko dira.

Hortaz, Fiskaltzaren ustez, horrek enpresa-kultura etiko bat sortzea izan behar du helburu, eta erantzukizun kriminalaren salbuespena edo aringarria egoera horren ondorio hutsa baino ez da.

1. ETIKA ETA JOKABIDE KODEA

- 1.1. Zigor Kodearen 2015eko erreformak exijitzen du delituak era esanguratsuan saihestu edo gutxitzeko Delituen Prebentziorako Eredua, eta horren arabera, baldintzak enpresaren egoera egokitu behar dira.
- 1.2. Etika eta Jokabide Kodea, berez, enpresaren arauen egituraren hierarkikoki goian dagoen tresna juridikoa da.
- 1.3. Etika eta Jokabide kodeak jaso egiten ditu BIC ARABAK bere jardueraren esparru bakoitzean aplikatzen dituen printzipio etikoak.
- 1.4. BIC ARABAK 2012ko irailaren 20an onetsitako eta aipatutako enpresaren webgunean argitaratutako Etika Kodea du.¹ “Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren zerbitzura dauden gobernuko kide, goi-kargu, aldi baterako langile eta gainerako zuzendaritza karguen Etikaren eta Gobernu Onaren Kodea”n, Eusko Jaurlaritzak 2011ko maiatzaren 10ean onetsitakoan, oinarritzen da aipatutako agiria. 2013ko maiatzaren 28an Gobernu Kontseiluak onartutako Erabakiak gainditu du aipatutako Kodea; Erabaki horren bidez, «Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin behineko langileen Etika eta Jokabide Kodea” onartzen da, eta Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 28ko 13/2013 EBAZPENAK xedatuta argitaratu zen EHAAn 2013ko ekainaren 3an. Ondoren, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren 19/2015 EBAZPENAREN, martxoaren 17koaren, bidez aldatu zuen. Aldaketa horren arabera, 2013ko maiatzaren 28ko Erabakia aldatzeko Gobernu Kontseiluak onartutako Akordioa argitaratu zen, —aipatutako erabakiak onetsi zuen Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin behineko langileen Etika eta Jokabide Kodea. Hori dela eta, Kargu publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen 1/2014 LEGEA, ekainaren 26koa, ere aintzat hartu behar da.
- 1.5. Etika eta Jokabide Kodea da eskuliburu honen funtsezko oinarria.

¹ Esteka: <http://www.bicaraba.eus/wp-content/uploads/2014/03/Codigo-de-etica-y-buen-gobierno-CEIA.pdf>

- 1.6. Etika eta Jokabide Kodea Euskal Autonomia Erkidegoaren — aurrerantzean EAE— bi hizkuntza ofizialetan idatzi behar da, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 3/1979 Lege Organikoaren, abenduaren 18koaren, 6. artikulua eta ondorengo arauak xedatutakoarekin bat etorriz.
- 1.7. Etika eta Jokabide Kodea BIC ARABAren web-orri korporatiboan argitaratuko da, eta zehazki, Gardentasunaren Ataria izeneko atalean, Etika eta Jokabide Kodearen 17. epigrafeak xedatutakoaren arabera.
- 1.8. Arabako Eraberrikuntza Industrialdea ABren —aurrerantzean, BIC ARABA— Administrazio Kontseiluak onetsi beharko ditu Etika eta Jokabide Kodean egiten diren aldaketak.
- 1.9. Eskuliburu hau, bere eranskinak eta Etika eta Jokabide Kodea betetzen ez badira, zigorrak ezarri ahalko dira; Etika eta Jokabide Kodearen 18.5 epigrafean eta Kapitulu honen 6. epigrafean xedatutakoarekin bat etorriz onetsitako diziplina-araubidean finkatuko dira aipatutako zigorrak, eta langilea kaleratu ere egin ahalko da.

2. DELITUEN PREBENTZIORAKO ESKULIBURUA

2.1. Definizioa

BIC ARABAk, pertsona juridiko gisa, duen erantzukizun penaleko araubidea azaltzea du helburu eskuliburuak; horretarako, arriskuak aztertu ditu eta finkatu du zer neurri ezarriko dituen BIC ARABAk enpresaren erantzukizun penala sor dezaketen delituei aurrea hartzeko eta saihesteko.

2.2. Xedea

1/2015 Legearen, martxoaren 30ekoaren, bidez Zigor Kodea berri-
izanaren ondorioz, ondoko ezinbesteko baldintzak exijitzen dira pertsona
juridikoari erantzukizun penala kentzeko: erabakiak hartzeko eta gauzatzeko
orduan zaintza eta kontrolerako beharrezko neurriak hartu behar izan ditu;
horretarako, barneko protokoloak eta prozedurak ezarriko dira. Zigor
Kodearen 31. bis artikulua eta Kapital Sozietateen legearen 226.1
artikulua exijitutako baldintzak betetzea du helburu Eskuliburuak. Hori dela
eta, aipatutako azken lege horri dagokionez, enpresa-eskumenaren menpe
dauden estrategia- eta negozio-erabakien esparruan, betetzat joko da
enpresaburu aginduak duen ardura estandarra administratzaileak fede onez,
erabakiaren xede den gaian interes pertsonalik eduki gabe, nahiko
informazioa izanda eta erabakitzeko prozedura egoki baten arabera jokatu
badu.

2.3. Helburuak

- 2.3.1. Eskuliburu hau idatzi denean, Zigor Kodearen 31.1 bis artikulua
xedatzen du kontrolatu behar direla administratzaileek eta
enplegatuek euren funtzioetan gauzaten dituzten ekintzak, eta
erakutsi beharko dela pertsona juridikoak arduratsuki jokatu duela
aipatutako ekintzak zaintzeko funtzioari dagokionez; kasu horietan
ez du enplegatuek edo administratzaileek egindako ustezko delituen
ardura izango.
- 2.3.2. Aurreko puntuari dagokionez, erantzukizun osotik salbustea
onartzen ez bada, Zigor Kodearen 31. bis artikulua 4. atalean
xedatutakoarekin bat etorriz, aringarri gisa har daiteke, delitua egin
baino lehen, halako izaerako delituei aurrea hartzeko edo horren
arriskua modu esanguratsuan murrizteko egokia den antolaketa- eta
kudeaketa-eredu eraginkor bat onartu eta gauzatu baldin badu.
Ahozko epaiketa hasi baino lehen gauzatu behar dira aipatutako
ekintzak.
- 2.3.3. Protokoloak, praktikak eta prozedurak finkatzea da Eskuliburuaren
helburuetako bat, Delitu identifikatuak egiteari aurrea hartuko dion
sistema bat sustatzeko. Halaber, diziplina-sistema bat sustatzea
delitu-jarrerak edo Etika eta Jokabide Kodean jasotako balore eta
printzipioen aurkako jarrerak atzemenez gero.

2.3.4. BIC ARABAKO langileengan delitu izan daitezkeen jarraibide eta ekintza jakin batzuen aurrean zenbait jokaera eta kontzientziazteko mekanismo sustatzea du helburu Eskuliburuak, baita finkatutako protokolo eta bideren bitartez horiek saihesteko moduak sustatzea ere.

2.3.5. Amaitzeko, Eskuliburuaren berezko helburuak zehazteari ekingo zaio:

2.3.5.1. Zenbait prebentzio-mekanismo ezartzea BIC ARABAn lan egiten dutenek egin ez ditzaten arriskuen mapan identifikatutako delituak.

2.3.5.2. Barneko arautegia eta aurretik finkatutako kontrol-protokoloak eta -prozedurak betetzen direla bermatzea, delituak egiteko arriskua eta Etika eta Jokabide Kodearen aurkako jokaerak minimizatzeko.

2.3.5.3. Enpresa-jardueran BIC ARABAK zaintza betebeharra guztiz betetzen duela egiaztatzea.

2.3.5.4. Pertsona juridikoaren baitan egindako delituak —halakorik egin baldin badu— antzemateko eta kontrolatzeko neurriak finkatzea; kasu horretan, Zigor Kodeak jasotako aringarria aplikatuko da.

2.3.5.5. Enpresaren baitan arauak betetzearen aldeko kultura sustatzea; horretarako, trebakuntza emango da eta barneko protokoloak zabalduko dira, baita Etika eta Jokabide Kodea ere.

2.3.5.6. BIC ARABAK indarreko legeria betetzearen aldeko konpromisoa duela eta legearen aurkako ekintza guztiak ez dituela onartzen berrestea.

2.4. ESKULIBURUA EGITEA

2.4.1. Eskuliburu hau egiteko protokoloa:

2.4.1.1. Arriskuen Mapa egiteari ekin zaio; enpresaren helburu soziala, izaera eta negozio arloak aintzat hartu dira horretarako.

2.4.1.2. Zehatz-mehatz aztertu dira egin daitezkeen delitu motak egiteko arriskuak.

2.4.1.3. Delituak egin ditzaten saihesteko BIC ARABAK alde zuzenetik ezarri dituen politikak eta prozedurak aztertu dira.

2.4.1.4. Eskuliburu eta Etika eta Jokabide Kodea betetzen ez badira, diziplina-sistema zigortzailea ezartzea.

2.4.1.5. Etika Betetzearen Batzordea osatzea, BIC ARABAren Etika eta Jokabide Kodearen 16. baldintzak xedatutakoarekin bat etorriz.

2.4.1.6. Barne Salaketetarako Kanal bat edo Etika Kanala ezartzea, delituzko praktiken edo ekintzen inguruan, edo delitu ez badira ere, Etika eta Jokabide Kodearen aurkakoak direnen inguruan informazioa emateko edo horiek salatzeke.

2.5. ESKULIBURUAREN EGITURA

2.5.1. I. KAPITULUA. Xedapen Orokorrak.

2.5.2. II. KAPITULUA. BIC ARABAren erantzukizun penala arautzea.

2.5.3. III. KAPITULUA. BIC ARABAREN Kontrol-egitura.

2.5.4. IV. KAPITULUA. Politikak, Arauak eta Prozedurak.

2.5.5. V. KAPITULUA. Etika eta Jokabide Kodea.

2.5.6. VI. KAPITULUA. Eskuliburu hau berrikustea.

2.6. SUBJEKTUAK

2.6.1. Eskuliburu honen subjektu jasotzaileak dira ondoren zerrendatzen diren pertsonak:

2.6.1.1. Administrazio Kontseiluko kideak.

2.6.1.2. BIC ARABAKO langileak edo merkataritza-kontratu baten bidez zerbitzuren bat ematen dutenak.

2.6.1.3. BIC ARABAN zerbitzuak ematen dituzten profesionalak.

2.6.1.4. BIC ARABAKO ordezkariak duten pertsonak.

2.6.1.5. BIC ARABAN administrazio-gaitasunak dituzten pertsonak.

2.6.2. Hornitzaileak, zuzkitzaileak eta bezeroak.

2.6.2.1. BIC ARABAREN eta hornitzaileen arteko harremanak hornitzaileen eta azpikontratatisten inguruan etengabe egiten den ebaluazio baten bidez finkatzen dira; horri esker, agindutako jarduera edo zerbitzua homologatu eta dokumentatuko da, eta

ondoren, zuzendaritzak onesteari ekingo dio. *Erosketak eta hornitzaileak Kudeatzeko Prozesuan* arautu da aipatutako prozesua.

2.6.2.2. Horrez gain, kontratazioaren esparruan BIC ARABAK bete behar dituen arauak betetzea eskatzen zaie.

2.6.2.3. Aipatutako prozesua, delituak gauzatuko ez direla bermatzeko mekanismo bat da, eta negozioetako ustelkeria-delituetan jartzen du arreta handiena. Horrez gain, BIC ARABAKo pertsonak gain hartzen duten osotasunarekiko eta egiteko modu onarekiko konpromisoaren emaitza da Etika eta Jokabide Kodea.

2.6.2.4. Halaber, BIC ARABAK nazioarteko ISO 9001 arauen arabera egiten du lan, kalitate-estandarte onenak bermatzearen.

2.6.2.5. Beraz, BIC ARABAn jarduera bezeroari eskaintzen dizkion zerbitzuen balore-kateko fase bat da. Bezeroarekiko eta beste batzuekiko harremanetan araua ez betetzea zehaztuko dituzten zenbait jarduera badira. Egoera hori saihesteko, BIC ARABAK jendaurrean jartzen du bere web-orriaren *Gardentasunaren ataria* atalean (<http://www.bicaraba.eus/portal-de-la-transparencia/>) Etika eta Jokabide Kodea, baita egiazko informazio fidagarria emanaz gardentasunaren printzipioa bermatzeko argitaratzen dituen gainontzeko agiriak ere.

2.6.2.6. Etika eta Jokabide Kodean jasotako printzipioak eta baloreak hornitzaileei, zuzkitzaileei eta bezeroei zabaltzen zaizkiela finkatzen da; horretarako, ondoko bitartekoak ditu:

- Kontratuan osoa onartzea, eta Etika Kodea eranskin gisa jasotzen da.

- Eskabidean baldintza orokorrak onartzea.
- Kontratua sinatu ondoren onartzea.
- Eskutitz baten edo posta elektronikoaren bidez onartzea.
- Sinadura elektronikoaren bidez eta data-zigiluarekin onartzea.

2.6.2.7. Dena dela, egiaztatzen baldin bada hornitzaileek eta bezeroek euren enpresa-jardueran Etika eta Jokabide Kodearen 4., 5. eta 6. epigrafeetan jasotako antzeko balore eta printzipioak dituztela, ez dute berariaz onetsi behar, nahikoa izango da enpresa-jardueran balore eta printzipio berberak dituztela alderatzearekin.

2.6.2.8. Etika eta Jokabide Kodean jasotako baloreak edo printzipioak urratu ahal dituzten egitateak eta ekintzak bereziki zaindu eta kontrolatzeko konpromisoa gain hartzen du BIC ARABAK, eta zehazki, ezingo da interpretatu jokaera horiek mugatu nahi direnik; ondokoak zehazten dira:

- (i) Bezeroak, hornitzaileak edo zuzkitzaileak duen ospea balore etikoak ez betetzearen inguruan edo negozioetako ustelkeria-delituak egiteari edo beste delitu mota batzuk gauzatzeko jardueri dagokienez.
- (ii) Negozioetako ustelkeriarekin, eroskeriarekin, administrazio desleialarekin, zigortzeko moduko kaudimengabeziarekin, jabetza intelektual eta industriarekin, merkatuarekin eta kontsumitzaileekin, sozietateekin lotutako delituen eta Zigor Kodean jasotako gainontzeko delituen arrazoizko adierazgarriak izatea, horiengatik aurretik salaketaren bat edukitzea edo epai kondenagarriren bat izatea.

- (iii) Hornitzaile edo bezeroen aldetik merkataritza-eragiketetan gardentasun-printzipiorik ez izatea.
- (iv) Hornitzaileak edo bezeroak ez ematea merkataritza-datu nahikorik eta datu faltsuak, gezurrezkoak edo ez osoak ematea.
- (v) Diruzko aurrerakinak emateko eskatzea, kontraprestazioak zerga-paradisutan edo atzerrian helbideratuta ordaintzeko eskatzea inolako justifikaziorik gabe, edo bitarteko pertsona baten izenean edo BIC ARABAKo egiaztagirietan jaso ez den beste banku-kontu batean ordaintzeko eskatzea.
- (vi) Fakturak egitea egokiak ez diren kontzeptuak jarrita, edo justifikatu gabe, edo faltsuak edo zatikatuak.
- (vii) Erosketak eta Hornitzaileak Kudatzeko Prozesuak eta kontratazioaren esparruan BIC ARABAK aplikatu behar dituen arauetan finkatutako mugak gaindituta, agindu beragatiko zenbatekoak zatikatzea edo zatikatzeko proposamena egitea.
- (viii) Hornitzaileak sistematikoki prezio kontraesankorrak jartzea edo gainfakturatzea.
- (ix) Agindua onartu ondoren, hornitzaileak edo zuzkitzaileak konfiantzaz abusatzea, kontratatutako zerbitzu edo ondasunen zenbatekoa garestituz, edo kontratuan adostutako zenbatekoak gainditzen dituzten ordainketak exijituz.
- (x) Edozein modutan, bitartekoen edo komisionisten bidezko kontratazioak saihestuko dira, justifikatuta

dagoenean izan ezik; kasu horretan, Etika eta Jokabide Kodea eta *Erosketak eta Hornitzaileak Kudeatzeko Prozesua* osoki bete beharko dira, baita kontratazioari dagokionez BIC ARABArentzat aplikagarri den arautegia ere.

- (xi) Bezeroak edo hornitzaileak beharrezkoak ez diren zerbitzuak edo eman ez direnak kontratatzeke eskatzea justifikaziorik gabe.
- (xii) Bezeroaren jarduera ohitura onen aurkakoa bada edo gizarte-morala erasotzen badu.
- (xiii) Pertsonari berari, bitartekoei edo elkarte, fundazio edo alderdi politikoei dohaintzak, opariak, hobariak edo beste prebenda mota batzuk emateko eskatzea.
- (xiv) BIC ARABAKO pertsona bat gonbidatzea edo opari bat ematea, batez ere, desproporzionatua baldin bada edo ohiko erabileratik at baldin badago.

2.7. ESKULIBURUA ONESTEA

2.7.1. Administrazio Kontseiluak onetsi behar ditu Eskuliburu hau eta eranskinetan jasotako protokoloak, arauetan edo estatutuetan aurreikusitako gehiengoen bidez. Halaber, Administrazio Kontseiluak onetsi beharko ditu egin beharreko eguneraketak.

2.7.2. Finkatutako edo gerora begira finka daitezkeen politikek, arauak eta prozedurek aintzat izango dituzte enpresaren organigrama eta dauden edo ezarri daitezkeen negozio-lerroak.

2.7.3. Etika eta Jokabide Kodea eskuliburu honen zati bat da.

2.7.4. Administrazio Kontseiluko kideek Eskuliburua ezagutu behar dute, baita Etika eta Jokabide Kodea ere.

3. ETIKA BETETZEAREN BATZORDEA

- 3.1. Etika eta Jokabide Kodearen 16. epigrafearekin ados, Etika Betetzearen Batzordea osatuko da. Etika Betetzearen Batzordea enpresaren barne-kontrolerako organo bat da eta kontrol-egituraren ardura du.
- 3.2. Etika eta Jokabide Kodearen 16.1.1 epigrafeak xedatutakoarekin bat etorriz, BIC ARABAren etika-jokabidea sustatzeko politikak hartzeari eta Eskuliburu honetako Etika eta Jokabide Kodea betetzeari buruz Administrazio Kontseilua aholkatuko duen organo ordezkaria da Etika Betetzearen Batzordea.
- 3.3. Etika eta Jokabide Kodearen 16.3.5 artikuluekin ados, Etika Betetzearen Batzordeak agindu-ahalmenak ditu, eta beharrezkoa duen informazio eska diezaioke BIC ARABAko edozein sailari.
- 3.4. Etika eta Jokabide Kodearen 16.2 epigrafearekin bat etorriz, ondoko kideak izango ditu Batzordeak:
 - 3.4.1. Administrazio Kontseiluko presidentea.
 - 3.4.2. Kapital sozialaren gehiengoak izendatutako kontseilari bat.
 - 3.4.3. Kapital sozialaren gutxiengoak izendatutako kontseilari bat.
 - 3.4.4. BIC ARABAko zuzendaria.
- 3.5. Etika eta Jokabide Kodearen 16. epigrafean zehaztutako funtzioak izango ditu Etika Betetzearen Batzordea. Aipatutako kodea Eskuliburu honetako V. Kapituluari jaso da.

4. KANAL ETIKOA

- 4.1. Kanal Etikoa edo salaketan kanala komunikazio-prozedura bat da, eta horren bidez, legea, Etika eta Jokabide Kodea edo barne-arauak beteko ez dituzten egoerei aurrea hartu eta horiek antzeman, ikertu eta ebatzi ahalko dira. Horretarako, BIC ARABAko pertsonak jazoerak salatuko dituzte.

4.2. *BIC ARABAko salaketen barne-kanalari buruzko Protokoloan* —Kanal Etiko izena ere badu— zehazten da komunikazio-prozesua. **ERANSKINEAN** jaso da eta Administrazio Kontseiluak onetsi egin du Eskuliburu honekin batera agiri bakar gisa.

4.3. Kanal Etikoa edo komunikazio-prozedura BIC ARABAKO pertsona guztien esku egongo da, eta BIC ARABAREN web korporatiboaren Gardentasunaren Atarian agertu beharko da.

5. BIC ARABAKO PERTSONEN ARTEAN DELITUEN PREBENTZIORAKO ESKULIBURUAREN ETA ETIKA ETA JOKABIDE KODEAREN INGURUKO TREBAKUNTZA ETA SUSTAPEN-HEDAPENA, SUTAPENA, TREBAKUNTZA, INFORMAZIOA ETA DIFUSIOA.

5.1. Etika eta Jokabide Kodearen 17. epigrafeak xedatutakoarekin bat etorriz, BIC ARABAko pertsonak trebatu beharko dira; horretarako, ahalik eta publizitate handiena emango zaie Eskuliburuari eta Etika eta Jokabide Kodeari eta barneko arautegiei eta protokoloiei.

5.2. BIC ARABAREN web korporatiboaren Gardentasunaren Atarian jasoko dira Delituen Prebentziorako Eskuliburua, Etika eta Jokabide Kodea eta barne arauak eta prozedurak.

5.3. BIC ARABAK gain hartzen du BIC ARABAko pertsonen Delituen Prebentzioari buruz informazioa emateko ardura, gutxienez, urtean behin. *Compliance Penaleko* aditu batek eta Betetzearen Batzordeko kide batek emango dute aipatutako trebakuntza.

5.4. Trebakuntzak ondoko helburuak ditu:

5.4.1. BIC ARABAko pertsonengan betetze-kultura ezartzen eta zabaltzen saiatzea.

5.4.2. BIC ARABAko pertsoneri ezagutaraztea enpresaren barruan onetsitako politikak, arauak eta protokoloak.

5.4.3. BIC ARABAko pertsonen eta Etika Betetzearen Batzordeko pertsonen arteko komunikazio-prozedura gisa zabaltzea Kanal Etikoa.

5.4.4. Eskuliburuan, Etika eta Jokabide Kodean eta barneko arauetan eta prozeduretan jasotako printzipioen aurkako delituei eta jokaerei aurrea hartzea.

6. ESKULIBURUA EDO ETIKA ETA JOKABIDE KODEA BETETZEN EZ BADIRA APLIKAGARRIA DEN DIZIPLINA-SISTEMA

6.1. Delituen Prebentziorako Eskuliburuaren benetako efikazia lortzeko, behar-beharrezkoa da diziiplina-sistema bat finkatzea jokaera onartezinak zigortzeko, kasuan-kasuan dagokion prozedura judiziala ere aplikatu ahal bada ere.

6.2. BIC ARABAko enplegatuei zigorrak ezarri ahalko zaizkie horretarako finkatutako prozeduraren bidez.

6.3. BIC ARABAko organo eskudunak ikusten badu ekintzaren edo jokabideren batek, Etika eta Jokabide Kodea eta Eskuliburu hau urratzeaz gain, delitu bat dela edo izan daitekeela, berehala salatuko da aipatutako ekintza. Etika eta Jokabide Kodearen 3.2 epigrafeak hori bera xedatzen du.

6.4. Indarreko legeriak finkatutako zigorrak jarriko dira, aplikagarri diren Hitzarmen Kolektiboekin, Langileen Estatutuarekin eta, oro har, lan-legediarekin bat etorriz.

6.5. Dena dela, lan-harremanik ez duten BIC ARABAko pertsonen kasuan, kontratu-harremanean aldeek hitzartutakoa aplikatuko da. Administrazio

Kontseiluko kideei dagokienez, aplikagarria den indarreko legeria bete beharko da.

II. KAPITULUA

ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEA AB- CENTRO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE ÁLAVA S.A. -BIC ARABA-K DUEN ERANTZUKIZUN PENALAREN ARAUBIDEA

1. ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEAK AB-K DUEN ERANTZUKIZUN PENALAREN EDUKIA

- 1.1. 5/2010 Lege Organikoak egindako erreformaren bidez, *societas delinquere non potest* printzipioa aldatu zen, eta horren ondorio nagusia izan zen pertsona juridikoaren erantzukizun penalaren printzipioa sartu zutela. Hortaz, aipatutako Legearen Zioen Azalpenaren VII. atalak azaltzen du zergatik sartzen duten pertsona juridikoen erantzukizun penalaren printzipioa:

“Era xehatuan arautzen da pertsona juridikoen erantzukizun penala. Nazioarteko tresna juridiko askok eskatzen dute erantzun penal bat pertsona juridikoentzat, batez ere horien esku-hartzea nabariagoa den delituzko figuretan (ustelkeria sektore pribatuan, nazioarteko merkataritza-transakzioetan, haur-pornografia eta prostituzioa, gizakien salerosketa, kapitalak zuritzea, legez kontrako immigrazioa, informatika-sistemak erasotzea...). Aipatutako erantzukizuna bakar-bakarrik aitor daiteke berariaz aurreikusitako kasuetan.

Pertsona juridikoen erantzukizuna finkatzeko, bide bikoitza finkatzea erabaki da. Ordezkatzeko boterea dutenek bere izenean edo kontura, eta bere etekinerako, egindako delituak egozteaz gain, enpleguaren beharrezko kontrola egikaritu ez izateagatik egiten diren arau-hausteengatik erantzukizuna gehitu da, nola ez, kasu zehatz bakoitzaren

egoerak aintzat hartu beharko dira egozpen-arau honen irakurketa objektibo hutsa ez egitearren”.

1.2. Aurrekoaren ondorioz, pertsona juridiko bati egotzi ahal zaion erantzukizun penalak ez du alde batera utziko pertsona fisikoarengan egotz daitekeena; metatu ahal izango dira eta ondokoak sor daitezke era bateragarrian:

1.2.1. Delitua benetan egin duen pertsona fisikoaren erantzukizun penala.

1.2.2. Delituak egitearen ondorioz sortu diren erantzukizun zibilak.

1.2.3. Pertsona fisiko zein juridikoei ezarri ahalko zaion erantzukizun administratiboa.

1.3. Espainiar lege-egileak sartutako indarreko sisteman, pertsona juridiko bati erantzukizun penala egotzeko bi ekintza mota eman beharko dira eta horien egiaztapenak fede-emailea izan behar du:

1.3.1. Erreferentziazko ekintza

1.3.1.1. Erabakitzeko gaitasuna duen edo pertsona juridikoaren inguruan antolatzeko eta kontrolatzeko gaitasunak egikaritzeko ahalmena duen lege-ordezkariek egitea delitua euren izenean edo pertsona juridikoa ordezkatzuz aritzen badira.

1.3.1.2. Delitua langileren batek edo beste edozein subjektuk egitea lege-ordezkarien agindupean edo pertsona fisikoaren erabakitze-gaitasuna duten pertsonen agindupean; pertsona juridikoak ez badu bere gain duen zaintza- eta kontrol-betebeharra bete.

1.3.1.3. Delitua aipatutako pertsona juridikoarentzat onura sortzeko egitea, beste asmo batzuk eduki ahal baditu ere.

1.3.1.4. Delituak aipatutako pertsona juridikoarengan benetan erantzukizun penala sortu ahal izatea.

1.3.2. Pertsona juridikoaren berezko ekintza

1.3.2.1. Pertsona juridikoak bere jabetzako ekoizpen-faktoreengan kontrol- eta zaintza-mekanismo prebentiborik ez izatea edo mekanismo horiek urriak izatea; horren ondorioz pertsona juridikoak delituak sustatuko ditu; horiek egin izanaren ardura izan dezake eta horien erantzukizuna izan ahalko du aipatutako pertsona juridikoak.

1.4. Delitu bat egitearen lurralde-esparruari dagokionez, erantzukizun penala espainiar legeriarekin bat etorriz hartuko da aintzat, betiere delitua espainiar lurraldean egin bada eta pertsona juridikoaren helbide soziala edozein izanda ere.

1.5. Zigor Kodearen 33.7 artikulua pertsona juridikoei ezarri ahal zaizkion zigorrak jaso ditu. Hona hemen pertsona juridikoei aplikatu ahal zaizkion zigorrak, denak larritzat jo dira:

1.5.1. Isuna, kuoten arabera edo proportzionala.

1.5.2. Pertsona juridikoa desegitea. Desegitearen ondorioz, nortasun juridikoa behin betiko galduko du, baita trafiko juridikoan jarduteko gaitasuna edo edozein jarduera mota egitekoa ere, legezkoa bada ere.

1.5.3. Jarduerak etetea epe batez. Epea ezin da bost urtekotik gorakoa izan.

- 1.5.4. Lokalak eta establezimenduak ixtea epe batez. Epea ezin da bost urtekotik gorakoa izan.
- 1.5.5. Ezingo du geroan egin delitua egin, horri lagundu edo estali zuenean egiten zuen jarduera. Debekua aldi baterako edo behin betiko izan daiteke. Aldi baterako bada, epea ezin da hamabost urte baino luzeagoa izan.
- 1.5.6. Epe batez ezingo ditu sektore publikoan kontratatzeko diru-laguntza edo laguntza publikoak jaso, eta galduko ditu zerga-hobari eta -pizgarriak eta Gizarte Segurantzarenak. Epea ezin da hamabost urte baino luzeagoa izan.
- 1.5.7. Esku-hartze judiziala langileen edo hartzekodunen eskubideak babesteko beharrezkotzat jotzen den eperako; dena dela, ezingo da bost urtetik gorakoa izan.
- 1.5.8. Esku-hartzeak antolakunde osoan edo instalazio, atal edo negozio-unitate batzuetan izan dezake eragina. Epaileak edo Epaitegiak, epaian, edo ondoren, auto baten bidez, esku-hartzearen edukia zehatz-mehatz zehaztuko du eta, aldi berean, esku-hartzearen ardura nork izango duen eta zer epetan egin beharko dituen organo judizialarentzako jarraipen-txostenak zehaztuko du. Esku-hartzea edozein unetan alda edo bertan behera utz daiteke; horretarako, aldezturik esku-hartzailearen edo Fiskaltzaren txostena behar da. Esku-hartzaileak enpresaren edo pertsona juridikoaren instalazio eta lokal guztietan sartzeko eskubidea du, baita bere funtzioetarako beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia jasotzeko eskubidea ere. Esku-hartzailearen funtzioa egikaritzearekin lotutako alderdiak arauz zehazten dira, esaterako, lansaria edo beharrezko duen kualifikazioa.
- 1.5.9. Kausaren instrukzioan, kautelazko neurri gisa, instrukzioko epaileak ere erabaki dezake lokalak edo establezimenduak epe

batez ixtea, sozietateren jarduerak bertan behera ustea edo eskuhartze judiziala.

- 1.5.10. Dena dela, BIC ARABAren idiosinkrasia dela-eta, Zigor Kodearen 33. artikulua 7. ataleko a) eta g) hizkietan egun aurreikusitako zigorrak baino ezingo ditu jaso.

2. PERTSONA JURIDIKOAREN ERANTZUKIZUN PENALA SORDEZAKETEN DELITUAK

- 2.1. Pertsona juridikoaren erantzukizun penala izan dezaketen ondoko delituen kategoria finkatzen da:

2.1.1. Gizaki-organoen trafiko eta legez kontrako transplantearengatiko delitua (156. bis art.)

2.1.2. Gizakien salerosketagatiko delitua (177. bis art.)

2.1.3. Adingabeen prostituzio eta ustelkeriarekin lotutako delituak (187. artikulutik 189. enera)

2.1.4. Sekretuak jakin eta beste batzuei esategatiko delitua (197. art.)

2.1.5. Iruzurrengatiko delituak (248. artikulutik 251. enera)

2.1.6. Zigortzeko moduko kaudimengabeziagatiko delituak (257. artikulutik 261. enera)

2.1.7. Informatika-kalteengatiko delituak (264. art.)

- 2.1.8. Jabetza intelektual eta industrialarekin, merkatuarekin eta kontsumitzaileekin loturako delituak (270. artikulutik 288.enera)

- 2.1.9. Kapitalak zuritzeagatiko delitua (302. art.)

- 2.1.10. Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak (305. artikulutik 310.enera)

- 2.1.11. Langileen eskubideen aurkako delituak (311. artikulutik 318.enera)

- 2.1.12. Pertsonen legez kontrako trafikoarengatiko eta ezkutuko immigrazioarekiko delituak (318. bis art.)

- 2.1.13. Lurralde- eta hirigintza-antolaketaren aurkako delituak (319. art.)

- 2.1.14. Natura-baliabideen eta ingurumenaren aurkako delituak (325. art.)

- 2.1.15. Biltegi edo zabortegi toxikoak ezartzeagatiko delitua (328. art.)

- 2.1.16. Erradiazio ionizatzaileei buruzko delituak (343. art.)

- 2.1.17. Hondamen-delitua (348. art.)

- 2.1.18. Droga-trafikoko delituak (368. eta 369. art.)

2.1.19. Kreditu- eta zordunketa-txartelak eta bidaia-txartelak faltsutzeagatiko delitua (399. bis art.).

2.1.20. Eroskeriaren delituak (419. artikulutik 427.enera)

2.1.21. Eragimen-trafikoko delituak (428. artikulutik. 430.enera)

2.1.22. Nazioarteko merkataritza-transakzioetako ustelkeria-delitua (445. art.)

2.1.23. Lurralderako funtsak hartzearen delitua (576. bis art.)

2.2. Aurretik aipatutako delituetatik, guztiak ez dira BIC ARABAK egiteko modukoak.

3. ERANTZUKIZUN PENALA SAIHESTEKO EDO ARINTZEKO MEKANISMOAK

3.1. 5/2010 Lege Organikoak pertsona juridikoen erantzukizun penalaren printzipioa ezarri zuen, baina zenbait interpretazio-zalantza sortu ziren Zigor Kodearen 31. bis artikulua lehengo testuak finkatzen zituen moduen inguruan.

3.2. Erreformatik teknikoki hobetu zuen pertsona juridikoen erantzukizun penalaren arauaketa.

3.3. Martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bidez gauzatutako erreformarekin, erantzukizun penalaren araubidea zabaldu egiten da politika publikoak gauzatzen dituzten edo interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituzten merkataritza-sozietateetara; horiei zenbait zigor jarri ahal zaizkie, Zigor Kodearen 33. artikulua 7. ataleko a) eta g) hizkietan egun aurreikusitakoak, alegia: kuoten bidezko isuna edo isun proportzionala, eta esku-hartze judiziala langileen eta

hartzekodunen eskubideak babesteko eta egokitzen jotzen den eperako. Epe hori ezin da bost urtetik gorakoa izan, eta esku-hartzeak antolakuntza osoan izan dezake eragina edo instalazio, atal edo negozio-unitate batzuetara muga daiteke. Kasu horietan, Epaileak edo Epaitegiak, epaian, edo ondoren, auto baten bidez, esku-hartzearen edukia zehatz-mehatz zehaztuko du eta, aldi berean, esku-hartzearen ardura nork izango duen eta zer epetan egin beharko dituen organo judizialarentzako jarraipen-txostenak zehaztuko du. Esku-hartzea edozein unetan alda edo bertan behera utz daiteke; horretarako, alde aurretik esku-hartzailearen edo Fiskaltzaren txostena behar da. Esku-hartzaileak enpresaren edo pertsona juridikoaren instalazio eta lokal guztietan sartzeko eskubidea du, baita bere funtzioetarako beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia jasotzeko eskubidea ere. Esku-hartzailearen funtzioa egikaritzearekin lotutako alderdiak arauz zehazten dira, esaterako, lansaria edo beharrezko duen kualifikazioa.

3.4. Kode honetan aurreikusitako kasuetan, pertsona juridikoek ondokoen ardura penala izango dute:

a) Euren izenean edo kontura egindako delituak, eta euren onura zuzenerako edo zeharkakorako, haien legezko ordezkariak edo pertsona juridikoaren izenean erabakiak hartzeko eskumena dutenek, edo antolaketa- edo kontrol-eskumenak dituztenek, banaka edo pertsona juridikoaren barneko organo bateko kide gisa aritzen direnean.

b) Sozietate-jarduerak egikaritzean egindako delituak, euren izenean edo kontura, eta euren onura zuzenerako edo zeharkakorako, aurreko lerrokadan aipaturiko pertsona fisikoen agintaritzaren mende daudenean egindakoak, egitate horiek egin ahal izan badituzte euren ikuskapena, zaintza eta kontrola egikaritzeko eginbeharra era larrian urratu dutelako, kasuaren inguruabar zehatzak kontuan izanda.

3.5. Pertsona juridikoei erantzukizun penaletik salbuesteko arrazoiak.

3.5.1. Aurreko ataleko a) hizkian agertutako pertsonak egin badute delitua, pertsona juridikoak ez du erantzukizun izango ondoko baldintzak betetzen badira:

1. Administrazio-organoak, delitua gertatu aurretik, antolaketa- eta kudeaketa-ereduak onartuta eta betearazita izatea, eta ereduok zaintza- eta kontrol-neurri egokiak jasotzea ezaugarri horietako delituak prebenitzeko edo delitu horiek egiteko arriskua nabarmen txikiagotzeko;

2. Pertsona juridikoaren barneko organo batek prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betetzea ikuskatzeko ardura esleituta izatea, eta organo horrek ekimenak eta kontrola egikaritzeko botere autonomoak izatea, edo pertsona juridikoaren barne-kontrolen eraginkortasuna ikuskatzeko eginkizuna lege ezarrita izatea;

3. Delituaren banakako egileek antolaketa- eta prebentzio-ereduak iruzur eginez haustea.

4. Bigarren baldintzan aipatutako organoak, ikuskapen-, zaintza- eta kontroleginkizunak egikaritzean, ez-egiteren bat edo jardun eskasa ez egitea.

3.5.2. Aurreko inguruabarrak partzialki baino ezin badira egiaztatu, inguruabar hori aintzat hartuko da, zigorra arintzeko.

3.5.3. Delitua 3.4 zenbakiko b) letran adierazitako pertsonak egiten badute, pertsona juridikoak ez du erantzukizunik izango, baldin eta, delitua gertatu aurretik, mota horretako delituak prebenitzeko edo horrelako delituak egiteko arriskua nabarmen txikiagotzeko antolaketa- eta kudeaketa-eredua osatuta eta ezarrita bazuen. Kasu horretan, 3.5.2 ataleko bigarren paragrafoan zehaztutako aringarria ere aplikatu ahalko da.

3.6. Antolaketa- eta kudeaketa-ereduek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

1. Prebenitu beharreko delituak zein jarduera-eremutan gerta daitezkeen zehaztuko dute.

 2. Pertsona juridikoaren borondatea osatzeko prozesua zehazteko protokolo edo prozedurak ezarriko dituzte, erabakiak hartzeko eta erabakiak betearazteko.

 3. Finantza-baliabideak kudeatzeko eredu egokiak izango dituzte, prebenitu beharreko delituak gerta ez daitezen.

 4. Prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betetzea zaintzeko ardura duen erakundeari balizko arriskuak eta ez-betetzeak jakinarazteko betebeharra ezarriko diote.

 5. Diziplina-sistema bat ezarriko dute, ereduak ezarritako neurriak betetzen ez direnean behar bezalako zehapenak ezartzeko.

 6. Eredua eta ereduaren balizko aldaketak aldizka egiaztatuko dituzte, ereduaren xedapenak larriki hautsi direla agerian uzten bada, edo antolaketan, kontrol-egituran edo garatutako jardueran gertatutako aldaketak direla eta beharrezkoa denean.
- 3.7. Aurrekoarekin lotuta, 1/2015 Lege Organikoaren bidez Zigor Kodean egindako erreformarekin bat etorriz Estatuko Fiskaltzak pertsona juridikoen erantzukizun penalari buruz egin duen 1/2016 Zirkularrak ondokoak zehaztu ditu, besteak beste:
- 3.7.1. Programek argiak, zehatzak eta eraginkorrak izan behar dute, eta idatziz jaso beharko dira. Ez da nahiko programa bat izatea, oso programa osatuta bada ere, ez bada egiaztatzen egokia dela egin den delitu zehatza prebenitzeko; horretarako, programaren edukia eta arau-haustearen arteko egokitasun-epaia egin behar da. Hori dela eta, antolaketa- eta kudeaketa-ereduek ondo egokitu behar dute enpresara eta arrisku zehatzetara.

- 3.7.2. Egokiak izan behar dute pertsona juridikoaren borondatea osatzeko eta erabakiak hartzeko eta gauzatzeko protokoloek eta prozedurek. Aipatutako prozedurek etika-irizpide handiak bermatu behar dituzte, bereziki, zuzendariak kontratatzeko eta promozionatzeko orduan eta administrazio organoetako kideak izendatzeko orduan. Arautegi sektorialak finkatutako egokitasun-irizpideei erantzuteko beharra izateaz gain eta, halako irizpiderik ez badago, pertsona juridikoak oso kontuan izan behar du lehiatzailearen ibilbide profesionala eta errefusatu behar ditu, aurrekariak ikusita, exijitu behar den egokitasuna ez dutenak.
- 3.7.3. Prebentzio-ereduetan giltzarria da barneko ez-betetzeak edo enpresaren jardura bidegabeak salatzeke zenbait kanal edukitzea. Hala ere, ezarritako betebeharra enplegatuei exijitu ahal izateko, entitateak salatzailea babesteko berariazko arautegia (whistleblower) izan behar du; horren arabera, ez-betetzei buruzko informazioa emateko orduan komunikazioen konfidentzialtasuna bermatuko dituzten sistemak erabiliko dira, errepresaliak jasotzeko arriskurik egon ez dadin.
- 3.7.4. Zuzendari-lanpostudunen eta enplegatuen betebeharrak argi finkatuko dituen jokaera-kodea izatea. Arau-hauste larrienak, logikoa denez, delitua sortzen dutenak dira, eta jaso beharko dira, halaber, horiek antzematea galarazten edo zailtzen duten jokaerak, baita antzemandako ez-betetzeak, laugarren baldintzak jasotakoak, kontrol-organoari jakinarazteko berariazko betebeharra ez betetzea ere.
- 3.7.5. Pertsona juridikoak aldi berean ereduaren efikazia egiaztatzeko ardura du. Indarreko legeriak berrikusteko eperik eta prozedurarik finkatu ez badu ere, antolaketa-eredu egoki batek berariaz jaso behar du. Gainera, eredu berehala berrikusi beharko da arrisku-analisan eragin dezaketen egoera jakin batzuk ematen badira; horiek zehaztu beharko dira eta, baldintza honetan jasotakoez gain, pertsona juridikoaren arrisku-profila nabarmenki aldatzen duten beste egoera batzuk ere sartuko dira (esaterako, korporazioaren jardueran eragina duten Zigor Kodearen aldaketak).

3.7.6. Aztertutako baldintza eta betekizun guztiak beteta ere, pertsona juridikoa zigorrrik gabe utziko da bakar-bakarrik delitu-egileek delitua egin badute antolaketa- eta kontrol-ereduak iruzurrez saihestuz.

4. ESKULIBURUA INPLEMENTATZEA

4.1. Eskuliburu honetako I. Kapituluko 2.3 puntuan jaso dira Eskuliburuaren helburua.

4.2. Dena dela, Eskuliburuaren helburu bakarra ez da enpresaren zigor penala saihestea, benetako enpresa-kultura etikoa sustatzea baizik.

4.3. Konpainiaren goi zuzendaritzak enpresaren kultura etikoa sustatzearekin duen konpromisoa eta horri laguntzeko nahi nabaria erakusten du Eskuliburua.

4.4. Ondokoak inplementatzen ditu Eskuliburuak:

4.4.1. Zein jarduera- edo negozio-arlo erabil ditzake pertsona juridikoak delituak egiteko.

4.4.2. Politika, arau eta prozedura zehatzak finkatzen ditu egin ahal diren delituen inguruan erabakiak hartzeko prozesuetan.

4.4.3. Salatzeko eta informatzeko kanal egokiak ezartzen ditu, komunikazioen konfidentziasuna bermatzeko modukoak.

4.4.4. Etika eta Jokabide Kodean finkatutako balore etikoak eta betetzeko kultura sustatzeko, BIC ARABAKO enpleguak eta gainontzeko langileak trebatzeko beharra finkatzen du.

- 4.5. Halaber, kontrolatzeko, agintzeko eta gainbegiratzeko funtzioak esleitu zaizkio batzorde independente bati, Etika Betetzearen Batzordeari, alegia.
- 4.6. Bestalde, legeetan edo jurisprudenzian aldaketarik gertatuz gero, Eskuliburua berrikusiko da, edo edukietan edo arauketan hutsuneak ikusiz gero. Dena dela, berrikusteari ekingo zaio antolaketan aldaketarik badago, helburu soziala zabaltzen bada edo negozio-lerro berriak garatzen badira, horiek arrisku penaletan aldaketak sortzen badituzte.

III. KAPITULUA

ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEA AB-CENTRO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE ÁLAVA S.A. -BIC ARABA-REN EGITURA

1. BIC ARABAREN EGITURA

1.1. Jabetzaren egitura

1.1.1. Sozietatearen kapitala 2016ko azaroaren 21ean:

Azken aldaketaren data	Kapital soziala (€)	Azkieen kopurua	Boto- eskubideen kopurua
2015-04-10	3.796.096	126.200	126.200

1.1.2. Akzioak izendunak dira —bakoitza 30,08 euro nominalekoa—, guztiak mota batekoak dira eta erabat harpidetuta daude.

1.1.3. BIC ARABA merkataritza-sozietate bat da eta bere kapital osoa publikoa da; ondokoak dira akziodunak:

Akziodunaren izena	edo Eraldaketa	Boto zuzen kopurua	eskubide	Boto guztiekiko %a	eskubide
SPRI Lehiakorrerako Sozietatea, SA		64.362		% 51	
Arabako Foru Aldundia		30.919		% 24,5	

1.1.4. Administrazio Kontseiluko kideek ez dute akziorik sozietatean.

1.1.5. Ez da jakinarazi sozietatearengan eragina izan dezakeen sozietateaz kanpoko hitzarmenik, eta ez da ezagutzen bere akziodunen arteko ekintza itundurik.

1.1.6. Sozietateak ez du autozorroan akziorik.

1.1.7. Estatutuan ez dago mugarik boto eskubideak gauzatzeari dagokionez.

1.1.8. Akzioak eskualdatzeko gaitasunaren inguruko murrizketa. Sozietatearen Estatutuen 8. artikulua ondoko mugak ezarri ditu kapital sozialaren partaidetzak eskualdatzearen inguruan:

“Bizidunen arteko ekintzen bidez akzioak besterentzeko, alde aurretik Sozietatearen Administrazio Organoari eskaini beharko zaizkio, Sozietateak eskura ditzan edo, ezetz esaten badu, akziodunei hogeita hamar eguneko epea emango zaie eskuratzeko. Saltzeko eskaintza jakinarazpena jasotzen denetik lehentasunezko sistema honen bidez besterentzea behin betiko egiten den arte, ezingo da hirurogei egun baino gehiagoko epea igaro. Akzioak eskuratzeko lehentasunak, akzionista bakoitzak duen proportzioaren arabera burutuko dira. Alde biek adostuko dute zein izango den eskualdatetaren prezioa. Ez badira ados jartzen, peritu batzuek finkatuko dute eskualdatze prezioa. Alde bakoitzak peritu bana izendatuko du eta hirugarren bat ados jarriz izendatuko dute, ezin badira ados jarri, Epaileak izendatuko du. Lehen aipatutako epea amaituta ez bada lehentasunezko eskubidea egikaritu, akzionistak askatasun osoa izango du bere akzioak saltzeko hurrengo hiru hilabetez eta egokiak jotzen dituen prezioetan. Sozietatearen Administrazio organoak, akzioak libre eskualdatzeari jarritako muga horiek aplikatzearen ondorioz sortzen diren gaiak ebazteko gaitasuna du.”

1.2. Sozietatearen Administrazioaren egitura

1.2.1. Estatutuen arabera, gehienezko eta gutxieneko kontseilari kopurua ondokoa da:

Kontseilarien gehienezko kopurua	9
Kontseilarien gutxieneko kopurua	3

1.2.2. 2016ko azaroaren 21ean 8 kontseilari dira.

1.2.3. Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuenak, finkatutako hautaketa-prozesuaren bidez eta sozietatearen estatutuekin bat etorritik aukeratzen dira Administrazio Kontseiluaren kideak.

1.2.4. Sozietateak ez du araurik jarri kontseilariak zenbat kontseilutan parte har dezaketen finkatzeko.

1.2.5. Administrazio Kontseiluak bere gain hartzen dituen erantzukizunak enpresari dagokionez, ondokoak dira batez ere:

1.2.5.1. Urteko Kudeaketa Plana eta horren burutzapenaren inguruko ebaluazio partzialak.

1.2.5.2. Goi-zuzendarien pizgarriak eta euren jardueraren ebaluazioa.

1.2.5.3. Sozietatearen eta bere talde finkatuaren Urteko Kontuak egitea.

1.2.5.4. Inbertsio eta finantzaketa politikak.

1.2.5.5. Administrazio Kontseiluaren Araudia

1.2.6. Sozietatean Kontseiluaren Araudi bat dago, 2012ko irailaren 20an egindako bileran onetsitakoa. Administrazio Kontseiluko kide guztiek horren kopia jaso dute eta ondoko alderdi hauek ditu Araudiak:

1.2.6.1. Kontseiluaren osaketa.

1.2.6.2. Kontseiluaren egitura.

1.2.6.3. Kontseiluko lantaldeak.

1.2.6.4. Kontseiluaren zereginak.

1.2.6.5. Kontseiluaren funtzionamendua.

1.2.6.6. Kontseilariak izendatzea eta kargu-uztea.

1.2.6.7. Kontseilarien betebeharrak (Kode deontologikoa)/ Interes-gatazka.

1.2.6.8. Kontseilariaren eskubideak eta ahalmenak.

1.2.6.9. Gobernu Korporatiboa.

1.2.7. Administrazio Kontseiluak Kontratatzeko Barne Jarraibideak onetsi ditu. Jarraibide horien bidez, kontratatzeko prozedurak arautzen dira eta, horrela bada, publizitate, konkurrentzia, gardentasun,

konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminazio eza printzipioen eraginkortasuna bermatuko da.

1.2.8. Ez dago berme edo blindatze klausurarik Sozietatearen goizuzendaritzako kideen edo kontseilari exekutiboen alde.

1.2.9. Kontseiluaren Araudiaren 19. artikulua xedatzen du kontseilariak euren kargua utzi beharko dutela ondoko kasuetan:

1.2.9.1. Kargurako ezarri zen epea amaitzen denean edo Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean legez eta Estatutuz esleituta dituen eskumenak erabilia.

1.2.9.2. Legeak aurreikusitako bateraezintasun edo debeku kasuren batean daudenean.

1.2.9.3. Kontseilari moduan dituzten betebeharrak urratzen dituztenean.

1.2.9.4. Kontseiluan jarraituz gero Sozietatearen interesak arriskuan jar ditzaketenean.

1.2.10. Ahalordeak pertsona bakar batean metatzeak dituen arriskuak mugatzeko, ondoko neurria hartu da: 50.000 eurotik 100.000 euro arteko ahalorde mankomunatuak izango dituzte kontseilari exekutiboek —presidentea eta kidea—, funtsean ondasun higigarriak zein higiezinak erosi, saldu eta trukatzeko; kontratuak egin, formalizatu, esleitu, luzatu, aldatu, berritu, ebatzi eta deuseztatzeko; mailegu- edo kreditu-eragiketak izenpetu eta formalizatzeko, eta mota guztietako berme, abal, bahi, hipoteka etab. eskatu, osatu, onartu eta ezeztatzeko. 100.000 eurotik gora Administrazio Kontseiluari dagozkio ahalordeak.

- 1.2.11. Edozein motako erabakiak hartzeko ez da legeak ezarritakoaz beste gehiengo indarturik exijitzen; erabakiak, erdia gehi bat quorumaren arabera hartuko dira.
- 1.2.12. Sozietatearen Estatutuen eta Kontseiluaren Araudiaren arabera, Kontseiluko presidentek ondoko funtzio hauek ditu organo horren funtzionamenduari dagokionez:
- 1.2.12.1. Kontseiluaren bileren deialdiak egin eta bileren buru izango da, ebazteko eta eteteko ahalmenarekin. Eztabaidak zuzenduko ditu, hitza nork duen erabakiko du eta mintzaldien iraupena zehaztuko du.
- 1.2.12.2. Kontseiluaren bileren gai-zerrenda finkatuko du.
- 1.2.12.3. Kontseiluko kide guztiak bileretara bertara daitezen saiatzea.
- 1.2.12.4. Kontseilariren bat kontseilura askotan joaten ez bada, zergatik ez den joaten egiaztatu beharko du.
- 1.2.12.5. Kontseiluaren eta Batzarraren erabakiak burutu eta betearaziko ditu.
- 1.2.12.6. Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratuko du, baita horren ondorioz egin daitezkeen hobetzeko proposamenak abian jartzen diren edo antzemandako akatsak zuzentzen diren ere.
- 1.2.13. Presidenteak kalitateko botoa du.

- 1.2.14. Estatutuetan edo Kontseiluaren araudian ez da kontseilarien adinari buruzko mugarik ezarri.
- 1.2.15. Ez dago prozesu formalik botoak Administrazio Kontseiluari eskuordetzeko, nahiz eta aktetan bakarrik jaso idatziz egindako boto eskuordetzeak.
- 1.2.16. Formulatuak izan daitezten Kontseiluari aurkezten zaizkion banakako urteko kontu finkatuak, aldez aurretik egin dira Zentoko arduradunak gainbegiratuta.
- 1.2.17. Administrazio Kontseiluak ez du mekanismorik ezarri berak egindako banakako kontu finkatuak Batzar Nagusian aurkez ditzaten ikuskaritza-txostenean zenbait salbuespen adieraziz.
- 1.2.18. Kontseiluko idazkaria kontseilaria da.
- 1.2.19. Kontseiluaren osoko bilkurak onesten ditu Kontseiluko idazkariaren izendapena eta kargu-uztea.
- 1.2.20. Kontseiluko idazkariaren funtzioa ondokoa da: funtzionamendu arauak egoki aplikatzen direla eta aktak jasotzeko eta sinatzeko prozedurak egoki burutzen direla zaintzea, akta liburuak eta akzionisten liburuak zaintzea eta akordioak izapidetzea.
- 1.2.21. SPRI Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SAK Talde osoan kontu-ikuskariaren independentzia bermatzeko, lehiaketa publiko bidezko kontratazioa gauzatzen du eta, horrela bada, publikitate, objektibotasuna eta konkurrentzia bermatzen dira.
- 1.2.22. BIC ARABAn urtero egin da ikuskaritza osatu zenetik.

1.2.23. Kontseilariak, beren jarduera burutzeko laguntza behar badute, lege, kontabilitate zein finantza aholkulariak edo beste aditu batzuk kontratatzeke aukera dute edo aditu haiek bileretara joan daitezzen eska dezakete. Kargua burutzeko orduan nolabaiteko garrantzia edo konplexutasuna duten gaien inguruan egin beharko da eskaria. Kontseiluaren presidenteari jakinarazi beharko zaio kontratatzeke erabakia eta kontratazioa ezetsi daiteke ondokoak egiaztatuz gero:

1.2.23.1. Ez dela beharrekoa agindutako funtzioak ondo burutzeko.

1.2.23.2. Kostua ez dela arrazoizkoa arazoaren garrantzia kontuan izanik.

1.2.23.3. Sozietateko aditu edo teknikariak egoki eman dezaketela eskatutako laguntza teknikoa.

1.2.24. Kontseilariak administrazio organoen bilerak nahiko denborarekin prestatzeko behar duten informazioa izan dezaten, deialdia gutxienez hamar egun natural lehenago bidaliko da — eskutitzez eginez gero—, eta zazpi egun natural lehenago —posta elektronikoz bidaliz gero—; kontseilari bakoitzari bidaliko zaio deialdia horretarako eman duen helbidera.

1.2.25. Enpresak sistema bat gauzatu du Administrazio Kontseiluko kideei etengabe informazioa emateko egoera ekonomiko eta finantzarioari eta jarduerari buruz. Horretarako, Administrazio Kontseiluaren bileretako gai-zerrendan berariaz puntu bat sartuko da eta puntu horretan egoera hori zuzenean zein den ezagutzeko garrantzitsua den informazioa eskainiko da.

1.2.26. Administrazio Kontseiluaren Araudian kontseilarietzako Kode Deontologikoa sartu da. Kode horrek zenbait etika- eta jokabide-irizpide jaso ditu eta kide guztiei aplikatuko zaie derrigorrez. Aipatutako kodean, etikoki onargarri diren erabakiak hartzeko, kontseilarien artean izan daitezkeen interes-gatazketarako

eta horiek konpontzeko, etab.erako irizpideak finkatzen dira. Horiek guztiak ondoko kapituluetan egituratzen dira:

1.2.26.1. Jokabide-irizpideak.

1.2.26.2. Kontseilariaren betebeharrak orokorrak.

1.2.26.3. Konfidentzialtasun-betebeharra.

1.2.26.4. Gardentasun- eta informazio-betebeharra.

1.2.26.5. Interes-gatazka.

1.2.26.6. Sozietatearen izena erabiltzea.

1.2.26.7. Publikoa ez den informazioa.

1.2.26.8. Lotutako pertsona.

1.2.27. Administrazio Kontseiluaren Araudiak xedatzen du kontseilariak bere edo berarekin lotutako pertsonen eta Sozietatearen artean interes-gatazka egoerarik sor ez dadin zainduko duela. Baina interes-gatazka eragozterik ez badu, horren berri emango dio Administrazio Kontseiluari. Zehazki honako hauek betez:

1.2.27.1. Kontseilaria ez da azalduko berarekin zuzenean nahiz zeharka zerikusia duten gaiei buruzko eztabaidetara eta ez du eztabaida horietan parte hartuko.

1.2.27.2. Kontseilariak ezin du zerbitzu profesionalen edo merkataritza zerbitzuen transakziorik burutu, ez zeharka, ez zuzenean, Sozietatearekin, ondoko salbuespenarekin: aurretiaz jakinarazten badu interes-gatazka dagoela eta Kontseiluak transakzio hori onartzen badu.

1.2.27.3. Kontseilaria ezingo da Sozietatearen negozio-aukera batez baliatu bere onurako edo berarekin lotura duen beste pertsona baten onurako. Negozio-aukeratzat, kontseilari lana egitean edo Sozietatearen baliabideez eta informazioaz baliatuz sortutako edo aurkitutako edozein inbertsio edo merkataritza-eragiketa bat egiteko aukera joko da.

1.3. Etika Betetzearen Batzordea.

1.3.1. Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintza Dekretuak, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina onetsi zuenak, administrazio kontseiluaren gaitasun-eskuordetzea finkatzen du. Horren inguruan, 1. atalean finkatzen du sozietatearen estatutuek beste gauza bat adierazten ez badute —eta hori ez da gertatzen BIC ARABAn, Sozietatearen estatutuaren 18. artikulua j atalak argi xedatzen baitu “funtzioak, guztiak edo zati bat, eskuordetzea”—, eta edozein pertsonari ahalordeak eman ahal badizkio ere, administrazio kontseiluak bere kideen artean kontseilari ordeko edo batzorde exekutibo bat edo gehiago izenda ditzakeela; horretarako, eskuordetzearen edukia, mugak eta modalitateak ezarriko ditu.

1.3.2. Aintzat hartu behar da BIC ARABA Sozietatearen Estatutuen 18. artikulua ondokoa xedatzen duela: “Administrazio Kontseiluak edo, halakorik badago, administrazio solidarioak edo solidarioek ahalorde osoa eta zabalena izango dutela Sozietatea administratzeko baina, bereziki, ondoko egiteko eta gaitasun hauek izango dituztela: (...) b) Sozietatearen negozioak zuzendu eta administratzea, horien etengabeko kudeaketa eginez. Horretarako, Sozietatearen

gobernu-arauak eta administrazio- eta funtzionamendu-araubidea finkatuko ditu, horren zerbitzu tekniko eta administratiboak antolatuz eta arautuz.

1.3.3. Aurrekoarekin lotuta, Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintza Dekretuak, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina onetsi zuenak, 249 bis artikulua sartu zuela aipatu beharra dago —indarrean dago 2014ko abenduaren 24tik—; ondoren zehazten dena xedatzen du aipatutako artikulua: Administrazio kontseiluak ezingo ditu ondoko gaitasunak inolaz ere eskuordetu: a) Osatu dituen batzordeen funtzionamendu eraginkorra eta izendatu dituen organo ordezkarien eta zuzendaritza-organoen jarduera gainbegiratzea. (...)”

1.3.4. Ondorioz, Etika Betetzearen Batzordea sortuz bermatu egiten da Administrazio Kontseiluak zuzenean kontrolatuko duela sozietatearen etika- eta gobernu-arauak betetzen direla, eta aipatutako gaitasuna ezin da eskuordetu.

1.4. Aplikagarri diren arauak

1.4.1. Aipatu beharra dago BIC ARABARI aplikatu ahal zaion eta ondoren azaltzen den legeria dela-eta xedapen batzuk aipatu ditugula, baina zerrenda mugatzeko asmorik gabe, ia ezinezkoa baita BIC ARABARI aplikagarriak zaizkion arauen zerrenda xehatua egitea baten bat kanpoan utzi gabe. Izan ere, jarduera-esparruaren arabera zuzenbidearen adar batzuk izango dira aplikagarriak, eta maila jakin batekoak gainera; esaterako, Espainiar Konstituzioa aplikatuko da BIC ARABA osatzen duten pertsonen oinarrizko eskubideei dagokienez, edo maila txikiagoko udal agindu edo ordenantzak ere aplikagarriak dira beste kasu batzuetan.

1.4.2. Berriz diogu, batzuk aipatzeagatik, baina zerrenda mugatzeko asmorik gabe, ondoko xedapenak aipa daitezke:

1.4.2.1. Berariazko legedi gisa, sozietatearen Estatutuak eta Administrazio Kontseiluaren Araudia aipatu behar dira.

1.4.2.2. Merkataritza-sozietate anonimoa denez, sozietate mota horiei aplikagarri zaizkion zuzenbide pribatuko arauak zuzenduko dute. Beraz, jardueran, oro har merkataritza-sozietateetan eta, bereziki, sozietate anonimoetan aplikatzen den legediaren pean egongo da.

1.4.2.3. Horrez gain, BIC ARABA kapital publikoko sozietate bat denez, sozietate publikoei aplikagarria zaion estatu mailako zein erkidego mailako legediaren pean egongo da. Sozietatearen jarduerari dagokionez, ondoko arauak aipa daitezke:

- (i) Estatu mailako legeria: Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategina onestekoa.
- (ii) EAEko berezko legeria:
 - Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onestekoa.
 - Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretua, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onestekoa.
- (iii) Sozietatearen jardueran garrantzitsuak direnez, ondokoak ere aipatu behar dira:
 - 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa.
- Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintza Dekretua, Langileen Estatutuaren Testu Bategina onestekoa.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- HAP/2425/2013 Agindua, abenduaren 23koa; horren bidez, sektore publikoko kontratazioari begira, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera kontratu mota batzuek eta besteek izango dituzten mugak argitaratzen dira.

1.4.3. Administrazio Kontseiluko abokatu aholkulari bat izendatu da, Kontseiluaren barruan hartutako erabakien balio juridikoa bermatzeko.

1.4.4. Urtean behin Gobernu Korporatiboaren txostena egiten da eta BIC ARABAren web-orrian argitaratzen da: <http://www.bicaraba.eus>

IV. KAPITULUA

ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEA AB-CENTRO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE ÁLAVA S.A. -BIC ARABA-REN POLITIKAK, ARAUAK ETA PROZEDURAK

1. BIC ARABAREN JARDUERA

1.1. Sozietatearen Estatutuetako 2. artikulua xedatutakoaren arabera, BIC ARABAK garatuko dituen jarduerak ondoko helburu soziala izango dute: enpresa-jarduera berritzaile berriak prestatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak ematea. Ondokoak izango dira:

1.1.1. Enpresa-proiektu berrietako sustatzaileak bilatu eta aukeratzea.

1.1.2. Sustatzaileak trebatzea.

1.1.3. Berrikuntzaren eta teknologiaren arloan laguntzea.

1.1.4. Enpresaren planifikazioa eta kudeaketa prestatzen laguntzea.

1.1.5. Proiektuak burutzeko beharrezkoa den finantzaketa lortzen laguntzea.

- 1.1.6. Enpresa berrientzat lokalak bilatzen laguntzea.
 - 1.1.7. Merkataritza-lokalak eraiki, saldu eta alokatzea.
 - 1.1.8. Eta enpresa-jarduera berritzaile berriak sustatzeko beste edozein jarduera, Arabako garapen ekonomikoari laguntzea xede izanda.
- 1.2. Aurreko puntuan azalduko jardueren garapenean delituak egiteko aukera aztertu da —aurrerago azalduko da— eta, horretarako, aztertu eta Eskuliburu honetan azaldutako politikak, arauak eta prozedurak ezarri dira.

2. ARRISKUEN KONTROLA

2.1. Kreditu-arriskua

- 2.1.1. Sozietateak jasan dezakeen kreditu-arriskurik nagusiena bere merkataritza-eragiketekin lotuta dago. Baina arrisku hori ez dago modu esanguratsuan metatua, bezero batzuen artean banatzen baita.

2.2. Likidezia- eta interes-arriskua

- 2.2.1. EAeko Urteko Aurrekontuek finkatuko dute Sozietateak bere jarduera gauzatzeko zer gaitasun izango dituen finantza-baliabideak lortzeko. Finantza-baliabide horiei (aktiboak zein pasiboak) buruzko baldintzak, normalean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bertako Finantza Erakundeek urtero sinatzen duten Hitzarmenaren bidez arautuko dira. Hitzarmen horrek, kasuan-kasuan aplikatu beharreko eta Euriborren arabera ezarritako interes-tasak, komisioak, etab. finkatuko ditu.

2.3. Merkatu- eta prezio-arriskua

2.3.1. Egoera ekonomiko orokorrak baldintzatuko du Sozietatearen jarduera, eta aipatutako egoera eragiten dioten zenbait zikloren mende dago. Baina arrisku horiek aritzen dira Sozietateak EAEn politika industrialeko tresnak garatzen dituelako eta, beraz, ez ditu bere aktiboak jarduera gauzatzen duen sektorearen ohiko denbora mugan gauzatu behar.

2.4. Arrisku penala

2.4.1. Kapitulu honetan delituak eta arrisku hori saihesteko zer arau eta prozedura jarri diren abian aztertu da.

3. DELITUAK ETA JARDUERA-POLITIKAK

3.1. **II. ERANSKINEAN** delituen eta jarduera-politiken azterketa azaltzen da. Ondokoak jaso dira:

3.1.1. BIC ARABAK egin ahal duen delitu-motaren azterketa. Azterketak ondokoak hartzen ditu gain:

3.1.1.1. Mota penalaren azterketa.

3.1.1.2. Delitu-mota egiteko arriskua duten jarduerak.

3.1.1.3. Jarduteko prozedurak, politikak eta arauak.

3.1.1.4. BIC ARABAK egin ditzakeen delituen zigorrak.

3.1.2. BIC ARABAko langileei egindako elkarrizketetan oinarrituta egin den Arriskuen Mapa (**II.I. ERANSKINA**).

3.2. Halaber, badira hasiera batean delitu-mota batean sartu ez diren baina delitu bat egiteko arriskua sortzen duten zenbait jokabide.

V. KAPITULUA

ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEA AB- CENTRO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE ALAVA S.A. -BIC ARABA-REN ETIKA ETA JOKABIDE KODEA

1. HELBURUA

- 1.1. ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEA ABren — aurrerantzean, BIC ARABA— Etika eta Jokabide Kodearen xedea ondokoa da: zehaztea zein portaera-printzipio eta -arau bete behar dituzten pertsona guztiek (langileek, oro har, eta zuzendaritzakoek) bere zereginak gauzatzean zein laneko harremanetan, betiere gardentasun- eta eraginkortasun-esparru batean.
- 1.2. **III. ERANSKINEAN** *Etika eta Jokabide Kodea* jaso da Eskuliburu honen agiri independente gisa.
- 1.3. BIC ARABArentzat zuzenean edo zeharka lan egiten dutenengan osotasun etikoa eta jarduera efizientea sustatzea dute helburu Kodean jasotako etika- eta jokabide-arauek.
- 1.4. Halaber, BIC ARABAK ematen dituen zerbitzuen kalitate handia mantentzea, eta kasua balitz, handitzea ere dute helburua aipatutako arauek.

- 1.5. Edozein modutan, Kodea tresna bizia eta malgua da, eta aldatu, egokitu eta zuzendu ahal izango da **Etika Betetzearen Batzordeak** urteroko Txostenekin ados ematen dituen gomendioen eta egiten dituen proposamenen arabera.

2. APLIKAZIO-EREMUA

- 2.1. BIC ARABAko pertsona guztiengan aplikatuko da Etika eta Jokabide Kodea. BIC ARABAko pertsonak SPRI Taldeko sozietateren bateko Administrazio Kontseiluko kide ere badira, sozietate horretako Administrazio Kontseiluko Araudiak —Kode Deontologikoa— xedatutakoa ere bete beharko dute. Horrez gain, Taldekoak ez diren beste sozietate batzuetako Administrazio Kontseiluetan parte hartzen badute, agiri honetan jasotakoen antzeko printzipio eta baloreak arautzen dituzten kodeak sustatuko dituzte.

3. ETIKA ETA JOKABIDE KODEAREN IZAERA

- 3.1. BIC ARABAko langileek errespetatu beharko dituzten gutxieneko etika- eta jokabide-arauak finkatzen ditu Kode honek. Araua hauek gutxieneko estandarrak dira, eta beren eskakizun mailetan osatu egin daitezke BIC ARABAko Batzar Nagusiak onar ditzakeen berariazko kodeen edo kode sektorialen bidez.
- 3.2. Etika- eta jokabide-arauak ez direla betetzen eta jokabide-estandar horiek ez direla behar bezala betetzen zalantzarik gabe egiaztatu ondoren, **Etika Betetzearen Batzordeak** hurrengo neurri hauetakoren bat hartzeko proposatuko dio BIC ARABAko Administrazio Kontseiluri, egindakoen edo egin gabe utzitakoen larritasuna edo inpaktu-eragina kontuan hartuta:
 - 3.2.1. Kargua berehala uzteko gomendioa, pertsona batek edo batzuek, egiteagatik edo egin gabe uzteagatik bete ez badituzte zehaztutako baloreak, printzipioak edo jokabide-estandarrak, edo haiei kalte egin badiete.

- 3.2.2. Organo eskudunera jotzea, aplikagarria den legediaren arabera pertsona horiei ezar dakiekeen diziplina-zigorra abiarazi, bideratu eta, hala egokituz gero, ezartzeko.
- 3.2.3. Fiskaltzara jotzea ez-betetzea berekin ekarri duen egintza edo ez-egitea falta edo delitua bada.
- 3.3. BIC ARABAn lan egiten dutenek, banan-banakako atxikitze-egintzan, bere egingo dute dimisioa organo eskudunari aurkezteko konpromisoa, Kode honetan aurreikusitakoaren arabera, jokabideak betetzeari dagokionez, berekin kargu-uztea dakarten kasuetakoren bat egokitzen bazaie.
- 3.4. Nolanahi ere, baloreek, printzipioek eta portaerek —jokabide-estandarrek— argituko dute nola interpretatu eta aplikatu behar diren aplikagarriak diren legediak, BIC ARABAn lan egiten duten pertsonen egintzei edo ez-egitei dagokienez, jasotako lan-zigor motak eta administrazio-arloko urratze-motak.

4. BALOREAK

- 4.1. Ondoko balioek gidatzen dute BIC ARABAn langileen jarduna:
- 4.1.1. OSOTASUNA. Etika Kode honen ikuspuntutik, osotasuna da BIC ARABAn lan egiten dutenek honako hauei atxikimendu sistematiko eta iraunkorra izatea: onestasan-, inpartzialtasun-, objektibotasun-, gardentasun-printzipioei, esparru juridikoaren errespetuari eta, zer diren gorabehera, enpresa-eremuan esku hartzen duten edo harekin harremana duten pertsona guztiei. Horrez gain, beren eskumeneko gaien kudeaketan erantzukizun-parametroen arabera jokatzeko da.
- 4.1.2. BIKAINTRASUNA.- Bikaintasun-balioak berekin dakar inplikatzeko eta etengabe ahalegintzea beti hobetzeko, eta, horren ondorioz, bezeroen eskakizunak guztiz betetzeko enpresa-erabakietan eta zerbitzuak prestatzeko eta emateko orduan, eraginkortasunez jokatzeko eta bat etorraraziz antolakundean lan egiten duten pertsonen helburuetan, hala nola teknologiei eta prozesuei dagokienez.
- 4.1.3. LIDERGOA.- Lidergoak beharrezkoa du ikuspegi estrategikoa izatea, zentzua eta norabidea ematea antolakundeari, balioa egiaztatzea eta giro egokia sortzea, prestasuna, inplikazioa ,gogoia eta egitura horretan lan egiten duten pertsonen leialtasuna

sustatzeko, taldeak trinkotzeko eta jokabide proaktiboa izateko, ardurak, kasuen arabera, delegatuz (behar izanez gero) indarreko arauekin eta legediarekin bat etorriz.

4.1.4. BERRIKUNTZA.- Zuzendaritzan berrikuntzaren balioak berekin dakar kultura-molde hau ezartzea eta sustatzea: enpresan sormena sustatzen duena; pertsonen lanbide-gaitasunak garatzen dituena, eta prozesuen, produktuen eta zerbitzuen emaitzak etengabe hobetzen dituena. Berrikuntzaren ondorioa da erabakitasunez eta etengabe egitea aldaketaren alde, bezeroen eskariei eta beharrei aurrea hartzea, eta egokitzeko ahalmena eta irekitasuna izatea ideia, kontzeptu eta prozesu berrien aurrean.

5. PRINTZIPIO OROKORRAK

5.1. Kode honi lotuta dauden pertsonak, Espainiako Konstituzioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta ordenamendu juridikoko gainontzeko arauak finkatzen dituzten printzipioekin, eta balore eta printzipio demokratikoekin bat etorriz burutuko dituzte euren zereginak.

5.2. 4. epigrafean aipatutako baloreek eta epigrafe honetan jasotako printzipioek argi uzten dute zer ardatzetatik abiatuta egituratzen diren Kode honetan aurreikusten diren portaerak eta jokabide-estandarrik.

5.3. Honako printzipio hauek dute eragina Kode honetan aurreikusitako jokabideak zehaztean:

5.3.1. Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna.

- Erabakiak hartzeko prozesuan eta, bereziki, beren eskumenak erabiliz egiten dituztenetan, langileek beti jokatuko dute inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera. Printzipio horiek, bereziki, kontratazio-prozeduretan, diru-laguntzak izapidetzean, arauen aplikazioan eta finantza-baliabideen edo bestelakoen erabileran baliatuko dira.
- Erabakiak hartzeko orduan, objektibotasunez eta inpartzialtasunez aztertuko dira legearen arabera onargarriak diren aukera guztiak. Ez dute boterea erabiliko abantailak edo onurak lortzeko, bereziki beren jarduera edo harekin lotutakoak gauzatzeagatik sor daitezkeen pribilegioak badira. Ez dute ezer egingo

pertsona baten mesederako tramiteak bizkortzeko edo ebazteko eta, bereziki, beren edo beren familia edo gizarte ingurunearen mesederako bada.

5.3.2. Kudeaketari eta lankidetzari lotutako erantzukizuna

5.3.2.1. BIC ARABAKo pertsonak egindako kudeaketatik erantzun beharko dute, baita beren eskumenen eta funtzioen esparruaren barruan hartutako erabakiengatik, egindakoengatik nahiz egin gabe utzitakoengatik ere.

5.3.2.2. BIC ARABAKo pertsonak euren jardueren ardura izango dute eta ez dute ardura hori lankideei edo eta mendekoei esleituko arrazoi objektiborik gabe; gainera, erakunde-maila guztiekin elkarlanean arituko dira interes orokorrari modu efikaz eta efizientean laguntzeko, betiere egungo eskumen-esparrua errespetatuz. BIC ARABAK sareko lana sustatuko du, baita bere funtzionamendu egokirako interesgarri izan daitezkeen ekitaldi eta lankidetzeta-lanetan parte-hartzea ere.

5.3.3. Efikazia, efizientzia eta gizarte errentagarritasuna.

BIC ARABAKo pertsonak efikazia, ekonomia eta efizientiaren printzipioekin bat etorri jardungo dute, betiere interes orokorra eta ezarritako helburuak betez. BIC ARABAK gain hartu eta sustatzen du bikaintasunarekiko konpromisoa. ISO 9001 nazioarteko arauari jarraiki jardungo du eta, beraz, helburu izango du kalitate eta bikaintasun maila handienak lortzea jarduera burutzeko orduan zein zerbitzuak emateko orduan. Halaber, berrikuntza, garapena eta etengabeko hobekuntza sustatuko ditu ahalik eta kalitate handiena lortzeko. BIC ARABAKo pertsona guztiek euren lankidetzeta, profesionaltasuna eta zerbitzu-pentsaera eskainiko dute, bezeroek espero dutena ahalik eta ondoen asetzeko; horrez gain, beharrak aldeztatik ezagutzeko ahalegina egingo dute, eta pertsona guztien trebakuntza eta gaitasuna sustatuko dute; horri esker, garapen profesionalak aukera emango die haien zereginetan etekin handiena lortzeko.

5.3.4. Dediakzio osoa, fede ona eta eredugarritasuna.

BIC ARABAko zuzendaritzak ondoko ardura du: bere ekintzen bidez erakutsi behar du zein garrantzitsu den arauak betetzea eta laguntza eskainiko die zalantzak dituzten pertsoneri edo gerta daitezkeen ez-betetzeari buruzko informazioa nahi dutenei. BIC ARABAko pertsonak ardura osoz burutuko dituzte beren funtzioak, uneoro indarrean dagoen bateraezintasun-erregimena leialtasunez betez eta euren jarduera gainontzekoen aurrean eredu izanez. BIC ARABAK jazarpen fisiko, psikologiko edo moraleko edo agintekeriako adierazpen guztiak arbuatuko ditu, baita pertsonen eskubideekiko beldurra eragingo edo minduko duen eremua sor dezakeen edozein jokaera ere. Pertsona guztiek bidezko moduan eta errespetuz tratatu beharko dituzte lankideak, nagusiak eta mendekoak, lan-ingurune atsegin, osasuntsu eta segurua sortuz. Era berean, BIC ARABAko pertsonen eta enpresa kolaboratzaileetako pertsonen arteko harremanak errespetu profesionalean eta elkarrekiko lankidetzan oinarrituko dira.

5.3.5. Austeritatea eta zintzotasuna.

- 5.3.5.1. BIC ARABAK eman dizkioten baliabide ekonomikoak austeritatez administratuko ditu eta ez ditu modu ezegokian erabiliko, modu arduratsuan kontsumituko du eta baimenduta dituen protokolo- eta ordezkartza-gastuak mugatuko ditu.
- 5.3.5.2. Kontratatik, hornitzaileak eta kanpoko laguntzaileak aukeratzeko prozesuetan parte hartzen duten BIC ARABAko pertsonak, inpartzialtasunez eta objektibotasunez jokatu behar dute, ezarritako irizpideak aplikatuz.
- 5.3.5.3. Ezingo da inolako abantaila pribaturik lortu eta interes pertsonalen eta BIC ARABAko interesen arteko gatazkak saihestuko dira, eta hautaketa-prozesu horretan parte hartzeari uko egingo zaio edo, gutxienez, egoeraren berri emango da.

5.3.5.4. BIC ARABAko pertsonak ezin dute bezeroen edo hornitzaileen diru, opari edo beste neurrigabeko arretarik onartu, beren zereginak gauzatzeko baldintza gisa har badaitezke.

5.3.6. Gardentasuna, irisgarritasuna eta konfidentzialtasuna.

5.3.6.1. BIC ARABAko kide guztiek beharrezko eta egiazko informazio osoa eta zehatza eman behar dute beren zereginekin edo eskumen alorrekin zerikusia duten jardueren garapenari buruz.

5.3.6.2. BIC ARABAko pertsona guztiek konfidentzialtasun osoz gorde behar dute beren jarduera burutzeko orduan jaso duten ezkutuko informazio guztia eta ezingo dute behar ez bezala erabili norbere edo hirugarren baten mesederako, ezta enpresan baja eman ostean ere.

5.3.6.3. Informazioaren izaeraren inguruan zalantzarik badago, ezkutukotzat hartuko da beste gauzarik baimentzen ez den bitartean.

5.3.7. Interes-taldeekin parte hartzea eta lankidetzan aritzea. Gobernu irekiaren printzipioak

5.3.7.1. BIC ARABAk bermatuko du bere kudeaketa interes-taldeetan oinarrituko duela, eta informazioaren, arretaren eta ematen dituen zerbitzuen kalitateari dagokionez etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa izango du. Interes-taldeei sozietatearen zerbitzuen funtzionamenduari buruzko informaziorako izateko eskubidea erraztuko die, legeek finkatzen dituzten mugekin, eta haien eskaera, kexa edo erreklamazioei azkar eta modu eraginkorren erantzuteko moduko mekanismoak bermatuko ditu.

5.3.7.2. BIC ARABA abegikorra eta hurbilerraza izan dadin sustatuko da, ulertzeko moduko hizkera argia erabiliz, prozedurak sinplifikatuz eta azkartuz, zerbitzuetara modu elektronikoan sartzeko aukera emanez eta arauen era erregulazioen kalitatea hobetuz. Bezeroek, langileek edo beste pertsona batzuek emandako datu pertsonalak babestuko dituela bermatuko du, eta gain hartuko du jardueraren kudeaketa eraginkorrerako beharrezkoak diren datuak soilik eskatzeko eta erabiltzeko konpromisoa. Interes-taldeek parte-hartzea eta elkarrizketa sustatuko du, parte-hartze eta kontsulta soilaz haratago, eta ahaleginak egingo ditu politikak diseinatzeko orduan interes taldeak inplikatzen, ezagutza eta berrikuntza bultzatzeko helburuarekin. Horretarako, erabiltzeko moduan dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu, telematikoak barne.

6. BALORE ETA PRINTZIPIO DEMOKRATIKOAK ERRESPETATZEA

Kode honen arabera jokatu behar duten pertsonak finkatutako Konstituzioaren eta Estatutuen esparrua errespetatuko dute eta, euren jardueran horietan jasotako printzipio eta balore demokratikoak aplikatuko dituzte eta Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratikoa sustatuko dute euren jardueran; horrez gain, euren ekintzetan berdintasun, askatasun, justizia eta aniztasun politikoaren printzipioak betetzen direla zainduko dute.

Giza eskubideen eta askatasunen errespetu osoan oinarrituko dute euren portaera. Jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi, sexu-joera edo bestelako egoera pertsonal, politiko edo sozialen batengatik diskriminazioa sor dezakeen jarduerarik ez dute egingo.

Tolerantziak eta aniztasuna sustatuz jokatu dute. Horrek esan nahi du forma kultural, politiko eta sozial guztiak errespetatu, aintzat hartu eta onartuko dituztela, betiere Giza Eskubideak errespetatzen badituzte eta indarkeria erabiltzen ez badute.

BIC ARABAK, bere jarduera-esparruan, ingurumena zaintzen lagunduko dituzten eta lurraldearen antolaketa arrazional eta iraunkorra bideratuko dituzten politikak eta jarduerak sustatuko ditu. BIC ARABAKo pertsona guztiak zorrotz beteko dituzten bai indarrean dagoen legeria bai segurtasun, lan-arriskuen prebentzio eta ingurumen politiken eremuan finkatutako barne arauak.

7. BIC ARABAKO PERTSONEN OSOTASUN, INPARTZIALTASUN ETA OBJEKTIBOTASUNAREN INGURUKO JARRERAK ETA PORTAERAK

BIC ARABAKo pertsonak hurrengo jokabide eta portaera hauek izan beharko dituzte osotasun-baloreari eta inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioei dagokienez:

- 7.1. Ez dute egingo pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo pitz dezakeen ezer.
- 7.2. Inoiz ez dituzte erabiliko erakundean duten postua edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka abantailak lortzeko norberarentzat, hala nola abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat.
- 7.3. Bere erabakiak edo irizpideak beste enplegatu edo kargudun batzuek betez gero, eskura dituen bitarteko guztiak jarri beharko ditu irizpide edo erabaki horiek erabil ez daitezten enplegatu edo kargudun horiek haietatik zuzenean edo zeharka etekina atera dezaten beraientzat edo beste batzuentzat.
- 7.4. Bere erabaki, ebazpen eta ekintza guztiak informazio fidagarrian egongo dira oinarrituta (txostenak, azterlanak, proiektuak, irizpideak), bai eta ebatzi beharreko gaiari lotura eskura dauden datuen azterketa objektiboetan ere. Horretarako, aholkularitza tekniko baliatuz, arazoak bitarteko propioen eta, hala egokituz gero, kanpoko bidez, arazoak modu objektiboan hartzen eta behar bezala konpontzen laguntzeko.

8. BIKAITASUNAREKIN LOTUTAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK.

BIC ARABAKo pertsonak, bere eginkizunak betetzean, bikaintasun-jokaeretan oinarrituta eta haien egokituta jardungo dute betearazte-eginkizunetan, eta zehazki:

- 8.1. Karguari loturako eginkizunak inplikazio bikainez bete beharko dituzte, hala nola beti ahaleginduz gidatzen duten edo beren zereginen xede den saila edo unitatea etengabe hobetzen.
- 8.2. Dagozkien eginkizunak betetzean, bezeroen eskakizunak betetzea eta haien zerbitzu hobekia ematea izan behar dituzte xede nagusi.

- 8.3. Baliabideen erabilera eraginkortasuna lortzea izango dituzte helburu beren jarduerak, baliabide pertsonalak izan nahiz teknologikoak edo kudeaketa-prozesuen arlokoak.
- 8.4. Gaitasun profesionalak eta pertsonalak garatu beharko dituzte, arreta etengabe jarritz prestakuntzan. Garapen profesionalean jarritako arretak ez die inoiz ere ezertan kalte egin beharko daukan karguari dagozkion eginkizunei.
- 8.5. Era berean, hizkuntza etengabe hobetzeko konpromisoa hartuko dute, batez ere euskarari eta karguari lortutako eginkizunak zuzen betetzeko nahitaezkoak diren beste hizkuntzei dagokienez.

9. LIDERGOAREKIN LOTUTAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK.

Lidergo-balorearen erabilera zuzena ondoko jokabideetan adierazten da:

- 9.1. BIC ARABAko pertsonak lehentasuna eman behar diete beti ikuspuntu estrategikoari eta plangintzari beren eginkizunak betetzean, etorkizuneko erronken eta arazoekonponbidea aurreikusteko.
- 9.2. Era berean, babesten duten proiektuaren alde jarduteko gogo bizia zabaldu behar dute erakundean eta hartan lan egiten dutenen artean, eta bere taldeari nahiz lankideei inplikazioa, buru-belarri aritzea eta leialtasuna eskatu behar dizkiete, bai eta kutsatu ere.
- 9.3. Taldeen eta lan-ekipoen kohesioa sustatuko dute, elkarreragina eta jarrera proaktiboa bultzatuko dituzte haien funtzionamenduan, eta, antolakundeak funtzionamendu ona izan dezan, beharrezko ardura guztiak utziko dituzte gaitasuna duten pertsonen esku.

10. BERRIKUNTZAREKIN LOTUTAKO JARRERA ETA JOKABIDEAK.

Berrikuntza-baloreari loturako jokabideak eta portaerak honela adierazten dira:

- 10.1. BIC ARABAko pertsonen jardueran, berrikuntza jarraibide nagusietako bat izango da, bai antolakundean bertan, bai dagozkien eginkizunak betetzean edo sailean, unitatean edo erakundean ematen diren zerbitzuetan.

- 10.2. Enpresaren egitura guztietan sustatuk oda berrikuntza, epe luzean balioa sortzeko estrategia sostengarri moduan.
- 10.3. Ingurune hurbilean eta lankideen artean etengabeko berrikuntza-kultura sustatu beharko dute eta, horren ondorioz, beren emaitzetan behar bezala ebaluatuko diren berrikuntza-proiektu zehatzak abiaraziko dira aurrekontu-ekitaldi bakoitzean.
- 10.4. Berrikuntzak berekin ekarriko du uneoro galdetzea eta aztertzea ea gauzak egiteko modu tradizionalak eta egungo metodoek egokienak, beharrezkoenak eta eraginkorrenak izaten jarraitzen duten, eta etengabe sustatuko du aldaketak egitea pertsonak, prozesuak eta bitarteko teknologokoak kudeatzeko moduetan.
- 10.5. Era berean, beren erakundeak etengabe irekita egotearen eta egokitzeko gaitasuna izatearen alde egin beharko dute, kasuan kasuko erakundeen lehiakortasuna hobetzeko sektore publikoko beste ingurune batzuekiko.
- 10.6. Berrikuntza-ekintzak bereziki eta etengabe hedatuko dira pertsonen, erakundeen nahiz zerbitzuen kudeaketan.

11. BIC ARABAKO PERTSONEK EUREN KARGUETAN DIREN BITARTEAN JARDUERA PUBLIKO EDO PRIBATUEKIN IZAN DITZAKETEN INTERES-GATAZKAK SAIHESTEAREKIN, ZINTZOTASUNAREKIN, INTERES SUBJEKTIBO EZAREKIN LOTURAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK.

- 11.1. Zintzotasunari, interes subjektibo ezari eta BIC ARABAKoen interes-gatazkak saihesteari loturako jokabideak eta portaerak bi motatakoak dira nagusiki:
- a) Interes-gatazkak sor ditzaketen jokabideak.
 - b) Opariekin eta litezkeen onurekin lotutako jokabideak.

11.2. BIC ARABAko pertsonak beren lanpostuen interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean sortzen dira interes-gatazkak.

11.3. Kargua bete bitartean beti saihestu beharreko interes-gatazka posibleei lotutako jokabideak hauek dira:

11.3.1. BIC ARABAko pertsonak inoiz ez dituzte erabiliko beren pribilegioak edo berezko eskumenak prozedurak azkartzeko edo onuraren bat emateko hirugarren pertsonen edo erakundeen alde, BIC ARABArena kez diren interesengatik.

11.3.2. Edozein erabaki edo jardueratan interes propioek eta BIC ARABAko interesak talka egiten badute, horren berri eman beharko dute, eta inoiz ez dute ezer egingo baldin eta egin beharreko horretan zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala badute, edo litekeena bada aipatutako interes-borroka piztea.

11.3.3. Ez dute inolako negoziarik edo jarduerarik egingo, zuzenean edo zeharka talka egin badezakete BIC ARABAko interesekin, edo zalantzan jar badezakete erabakiak hartzeko prozesuaren edo enpresaren funtzionamenduaren objektibotasuna.

11.3.4. Balizko interes-gatazka batean nahas daitezkeen BIC ARABAko pertsonak lehentasuna eman behar diete beti eta kasu guztietan enpresaren interesei.

11.3.5. Bere betebeharrekin eta erantzukizunekin talka egiten duten edo egin dezaketen interes-gatazka posible baten eraginpean egon daitezkeen BIC ARABAko pertsonak berehala jakinarazi beharko diote hori Etika Betetzearen Batzordeari eta, idatzita ahal bada, gatazka horren berri eman beharko dute, edo bestela, gutxienez, unean bertan edo etorkizunean balizko interes-gatazka bat egon daitekeelako zalantza jakinarazteko betebeharra dute.

Idazkiak aipatu organo horren erantzuna jasoko du berehala. Interes-gatazka bat pizten bada, edo gatazka hori egon daitekeelako zalantza sortzen bada, BIC ARABAKo pertsonen erakundearen izen ona zaintzeko kautelazko neurri gisa, ez dute esku hartuko ezer erabakitzeko edozein prozesutan, prozesuan esku hartuta interes-gatazka bat pizteko zalantza txikiena ere egonez gero.

11.3.6. BIC ARABAKo pertsonen, aurreko atalean aurreikusitako egoeretako batean badaude, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte beren ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezeinetan ez dagoen saileko beste kargudun baten esku.

11.4. Opariei eta litezkeen onurei lotutako jokabideak eta portaerak:

11.4.1. BIC ARABAKo pertsonen ez dute onartuko pertsona edo erakunde publiko edo pribatuen inolako ematerik edo oparirik, ohiko ohiturei edo kortesiari lotuta ez badaude, betetzen duten karguagatik jasoz gero, geroago beren erabakietan interferentziarik oro saihesteko eta, horrenbestez, erakundearen inpartzialtasun- eta osotasun-irudia zaintzeko. Opari edo emate guztiak lehenbailehen itzuliko zaizkie haiek egin dituzten erakundeei edo pertsonen.

11.4.2. Itzultze hori, dena delakoagatik, ezinezkoa bada, erakunde publikoetako gizarte-zerbitzuei edo gobernuz kanpoko erakundeei emango zaizkie gauza horiek, geroago premia duten pertsona edo taldeen artean bana ditzaten.

11.4.3. Bidaiei dagokienez, hirugarrenek bidaiatzeko txartelak, hotela eta mantenua ordaintzea baino ez dute onartuko, baldin eta BIC ARABAKo pertsonen, erakunde pribatu, publiko edo erakunde publikoen mendeko erakundeen ofizialki gonbidatuta, jarduera, bilera, jardunaldi edo kongresuren batean parte hartu behar badute beren ardurarekin zerikusi zuzena duten gaiak lantzeko.

- 11.5. Inoiz ere ez dute onartuko diruzko edo gauzazko saririk hitzaldiak emateagatik edo eztabaidetan parte hartzeagatik, jarduera bere kualifikazioen eta aurretiazko lanbide-jardueren arabera gauzatzen ez bada, eta ekitaldi horretan parte hartzearen xedeak batere zerikusirik ez badu BIC ARABAn duten kargua betetzearekin.
- 11.6. Ez dute onartuko pertsona fisikoen edo entitate pribatuen faborezko tratuirik, ezta arrazoirik gabeko pribilegio edo abantaila dakarren egoerarik ere.
- 11.7. Era berean, beharrezkoak diren zentzuzko neurri guztiak hartuko dituzte hurbileko senideek inola ere oparirik edo mozkinik jaso ez dezaten edozein pertsonarengandik edo erakundetatik, baldin eta jasotze horrek hirugarrenen aldeko faborezko tratua dagoelako susmo txikiena ere pitz badezake eta, horrenbestez, kalte egin badiezaioke inpartzialtasun- eta konfiantza-irudiari.
- 11.8. Ez dituzte desegokiro erabiliko BIC ARABAk, betetzen duten karguengatik, eskura jartzen dizkien ondasunak eta zerbitzuak.
- 11.9. Zintzotasunak jokabide zuzen, zintzo eta prestua izatea dakar berekin, hitza eta jokaera kasu bakoitzean zuzentzat jotakora egokitzea, bidegabeko abantailak baztertzea eta ez erabiltzea karguari lotutako pribilegioak ezein onura-mota lortzeko. Era berean, karguan jokabide zintzoa izatearen ondorio da gauza izatea egiazkotasuna eta sinesgarritasuna adierazteko, eta ez engainatzea, nahastea edo estaltzea konpondu beharreko arazoak.
- 11.10. Kode honen eraginpeko pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, hartako Administrazio Instituzionala osatzen duten erakundeak edo sektore publikoa ordezkatzeko badituzte partzuergoetako edo partaidetutako beste erakunde batzuetako administrazio-kontseiluetan edo beste gobernu-organo batzuetan, inoiz ere ez dute babestuko zuzendaritza-mailako pertsonen kontratazioa, baldin eta kontratu horietan blindaje-klausulak edo kargua uzteagatik kalte-ordainak ezarri eta haiek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zuzenbide pribatuko sozietate eta erakunde publikoetako

zuzendaritzetako kideentzat legez onartutako kopurua baino handiagoak badira.

12. ERAKUNDE-ERRESPECTUAREKIN ETA ERRESPECTU PERTSONALAREKIN LOTUTAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK.

BIC ARABAko pertsonak honako jokabide hauek izango dituzte erakunde-errespetuarekiko eta errespetu pertsonalarekiko:

- 12.1. Kargu publikodun eta parekatuek arreta zeta begirunez hartuko dituzte enpresako gainerako kargu publikodunak, enpleguak eta bezeroak, baita karguaren eta arduren ondorioz gauzatutako harremanetan parte hartzen duen edonor ere.

- 12.2. BIC ARABAko pertsonak ezingo dituzte inolaz ere faltsutu curriculum profesionalari, titulazioari eta esperientziari buruzko datuak, ezta haiei buruz gezurretan aritu ere. Arlo horiei buruzko edozein faltsutze eta gezurren ondorioa izango da karguari berehala uko egitea eta, hala badagokio, funtzio gabetzea.

13. GARDENTASUNAREKIN ETA GOBERNU ONAREKIN LOTURAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK.

Honako hauek dira gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko jokabideak eta portaerak:

- 13.1. BIC ARABAko pertsonak gardentasun-printzipioaren arabera gauzatuko dituzte zerbitzuak ematen dituzten sail zein erakundeetako jarduera politiko, zuzendaritza publiko eta kudeaketa-jarduna, legeak konfidentzialtasuna xedatutako egoeretan edota hirugarrenen eskubideak kaltetzeko moduko egoeretan izan ezik. Dena dela, salbuespen horiek era murriztailean interpretatuko dira, legeek aurreikusitakoaren arabera.

- 13.2. Publikotasun-printzipioa benetan betetzea garatuko dute, dagozkien sail zein erakundeen gardentasuna bermatze aldera, eta behar den

hienean, legez ezarritako betebeharrak betetzeaz gain, bai ekintzei bai sailen kudeaketa-jarduerei gardentasun-gehirri bat eransten ahaleginduko dira.

13.3. BIC ARABAko pertsonen betebeharra da herritarrengan konfiantza sortzea, gardentasunaren bidez, eta erabakiak arrazoituta, ezagueraz eta objektibotasunez hartzea.

13.4. Informazio-eskaerei erantzun arinak eta egoki arrazoituak emango zaizkiela bermatuko dute.

13.5. Dagozkien entitate eta sailetan Gobernu Irekiaren alde, datuak berrerabiltzearen alde eta teknologiaren alde egingo dute.

13.6. Euren funtzioetan, datu pertsonalak babestuko dituzte beti.

13.7. Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren ondorioz sortutako betebeharrak guztiak betetzean, euskararen erabilera bereziki zainduko da, bai publikitate aktiboan bai informazioa eskuratzean.

14. KUDEAKETAREKIKO ARDURAREKIN LOTUTAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK.

Honako hauek dira kudeaketarekiko ardurarekin lotutako jokabideak eta portaerak:

14.1. BIC ARABAko pertsonak prestutasunez eta arduraz beteko dituzte dagozkien funtzioak, eta kontuan izango dute erabaki eta ekintzen erantzule direla beti instantzia eskudunen aurrean. Horregatik, beren jardueren erantzule izango dira nagusien aurrean, eta ez dituzte erantzukizunak egotziko mendeko gainerako langileen gain, kausa objektiboren bat izan ezean, edo egitekoen eskuordetzea aurreikusi ezean.

- 14.2. Kargu publiko bat betetzen dutenek arduraldi osoa eta eskusiboa eman behar diote dagozkien funtzioak betetzeari, aplikatu beharreko legedian jasotakoaren arabera.
- 14.3. Helburuak eta jomugak ezartzen jardungo dute, baita kudeaketa adierazleak ezartzen ere. Hartara, lortutako emaitzen ebaluazio objektiboa bideratuko da, eta horrenbestez, emaitzak neurtzeko sistemak ezarriko dira.
- 14.4. Dagozkien antolakundeetan enpleguen lanbide-sustapenerako sistemak eta gauzatutako lana ebaluatzeko sistemak ezartzearen alde egingo dute, kudeaketa hobetzeko bitarteko diren aldetik.
- 14.5. Isil-gordean eutsiko diote egitekoak betetzean jakindakoari, eta ez dute inolaz ere informazio konfidentzialik hedatuko, ezta karguagatik jakindako informaziorik ere.
- 14.6. Baliabide publikoak eraginkortasunean, efizientzian eta ekonomian oinarrituta kudeatuko dituzte. Ez dute BIC ARABAren ez baliabiderik ez ondasunik erabiliko interes pribatuetarako.
- 14.7. Tratu berdina bermatuko dute, inolako arrazoi edo egoeratan oinarritutako bereizketarik egin gabe.
- 14.8. Ekitatea sustatuko dute, eta bete-betean gauzatzea eragozten duten oztopo guztiak kenduko dituzte.

15. EREDUGARRITASUNAREKIN ETA KANPOKO BESTE ADIERAZPEN BATZUEKIN LOTUTAKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK.

BIC ARABAko pertsonen eredugarritasun-printzipioari eta kanpoko beste adierazpen batzuei dagokienez, hona hemen jokabideak eta portaerak:

- 15.1. BIC ARABAko pertsonak ez dute inoiz jokatu behar, ez ekitaldi publikoetan, ezta pribatuetan ere, ordezkatzeko duten edo zerbitzatzeko duten enpresaren irudia kaltetzea ekar dezaketen jardunbide edo jarreraren arabera.
- 15.2. BIC ARABAko edozein pertsonak izan behar duen eredu-erregulazioaren irudia zuzenean kaltetzen duten ekintza, jardunbide zein gertaerak zuzenean kaltetzen dute erakundeak duen irudia eta horren ospean dute eragina. Etika Betetzearen Batzordeari jakinarazi beharko zaizkio aipatutako ekintza eta jardunbideak. Batzordeak aztertuko ditu horiek guztiak, eta kasu bakoitzari dagokion gomendioak emango ditu.
- 15.3. Zuzendaritza-funtzioak dituzten BIC ARABAko pertsonak jardunbide erregulazioa izan behar dute jardueraren pertsonaletan, eta inguru etikoa sustatu behar dute dagozkien antolakundean. Izan ere, BIC ARABAn lanean diharduten gainerako pertsonentzat eredu izateko erantzukizuna dute beren gain.
- 15.4. BIC ARABAko pertsonak edozein prozesu penaletan zein inputatuz gero, BIC ARABAn dituzten egitekoak betetzeari lotutako gertaeren ondorioz, horren berri emango zaio Etika Betetzearen Batzordeari, kasu bakoitzean egoki irizitako gomendioak eman ditzan. Prozedura izapidetzean egiaztatzen bada ez duela erantzukizunik, pertsona errehabilitazioari ekingo zaio, kargua kendu baldin bazitzaion, berriro emanez, edota dagozkion bitartekoen bidez.
- 15.5. BIC ARABAko pertsonak, dagozkien egitekoak betetzen dituzten bitartean, ezingo dituzte kargu organikoak zein kudeaketa-karguak bete fundazio, elkarte nahiz bestelako entitateetan, ordainsaririk gabekoak izanda ere, haien helburuak eta funtzioen xede diren interes publikoak aurkakoak izatea litekeena baldin bada, edota interesen arteko gatazka sor badaiteke. BIC ARABAn interesen aurkakoak izan daitezkeen xede eta jarduerak dituen edozein elkarte nahiz erakundetan parte hartzea Etika Betetzearen Batzordeari jakinaraziko zaio berehala, eta dagokion gomendioa emango du.

- 15.6. BIC ARABAko pertsonak erreklamazio-eskubide legitimoak eska ditzakete, eta egoki izanez gero, epaileen eta auzitegien aurrean babes judiziala eska dezakete, edozein gatazka zein eztabaida juridikori dagokionez.
- 15.7. BIC ARABAko pertsonak ezezkoa eman behar diote zuzenean zein zeharka nolabaiteko ordainsari edo konpentsazio ekonomikoa dakarten irratiko hizketaldietan edo telebistako eztabaidetan parte hartzeari.
- 15.8. BIC ARABAko pertsonak edozein hedabidetako eztabaidetan eta gogoeta-prozesuetan parte hartu ahal izango dute, bai eta ekitaldi publikoetan ere.
- 15.9. Nolanahi ere, BIC ARABAko pertsonak ez dute adierazi behar BIC ARABAren inguruko gaiekiko desadostasunik, eta jarrera horiek ez dituzte argi eta garbi kritikatu behar hedabideetan, gizarte-sareetan edo Internet bidez. BIC ARABAko pertsonaren batek desadostasun horri eusten badio, askatasun ideologikorako eta adierazpen-askatasunerako oinarritzko eskubidean babestuta, dimisioa aurkeztu beharko du, koherentziari euste aldera, eta kargutik kentzea onesteko eskumena duen organoak erabakiko du dimisio hori onartu behar den edo ez den
- 15.10. BIC ARABAko pertsonak hedabideetan parte hartzeko, nagusi hierarkikoak baimena eman behar du alde zuzenetik, berariaz zein zuzenki, enpresa-alorrarekin zerikusirik ez duten gaiei buruzko elkarrizketa zein erreportajeetan izan ezik
- 15.11. Betetzen duten karguaren ondorioz liburutan, aldizkaritan, egunkaritan eta beste edozein hedabideetan ekarpenak egiteagatik ez dute inolako ordainketarik onartu behar, baldin eta ekarpen horiek funtzioak betetzeari lotuta badaude.

16. ETIKA ETA JOKABIDE KODEA BETETZEA.

- 16.1. Etika Betetzearen Batzordea sortu da.

16.1.1. Administrazio Kontseiluari aholkatuko dion organo ordezkaria da Etika Betetzearen Batzordea; BIC ARABAREN jokaera etikoa sustatzeko hartu beharrekoa neurrien inguruan aholkatuko dio, eta Jokabide-Kode hau betetzarren.

16.1.2. BIC ARABAKO Administrazio Kontseiluak, BIC ARABAREN Administrazio Kontseiluaren Araudiaren 10. artikularekin bat etorritik, Etika- eta Jokabide-Kode hau onesten duen bileran bertan, Etika Betetzearen Batzordea osatuko du.

16.2. Honako kideek osatuko dute Batzordea:

16.2.1. Administrazio Kontseiluko presidentea.

16.2.2. Kapital sozialaren gehiengoak izendatutako kontseilari bat.

16.2.3. Kapital sozialaren gutxiengoak izendatutako kontseilari bat.

16.2.4. BIC ARABAKO zuzendaria.

16.3. Etika Betetzearen Batzordeak ondoko funtzioak izango ditu:

16.3.1. Etika Betetzearen Batzordea izango da oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, Kode honetan eta Delituak Aurreikusteko Eskuliburuan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du.

16.3.2. Etika eta Jokabide Kodea benetan abian jartzea sustatuko du, horretarako beharko diren ekintzen eta neurrien bidez.

- 16.3.3. Etika eta Jokabide Kodean egin beharreko aldaketak proposatuko dizkio Gobernu Kontseiluari, aintzat har ditzan.
- 16.3.4. Etika eta Jokabide Kodea eta Delituen Prebentziorako Eskuliburua aplikatzearen inguruan BIC ARABAko pertsonen kontsultei zein beste edozein instantziak egindako kontsultei irtenbidea emango die.
- 16.3.5. Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea. Dagozkien zigor-proposamena egiteko beharrezkoa duen informazioa emateko agindu edo eska dezake.
- 16.3.6. Administrazio Kontseiluari, zein hori osatzen duten batzorde eta sailei, Etika eta Jokabide Kodea eta Delituen Prebentziorako Eskuliburua betetzeari buruzko gomendioak egitea. Gainera, Administrazio Kontseiluari bidaliko dizkio aurreko atalean aipatutako zigor-proposamenak, berretsi dezan edo egokia dena erabaki dezan.
- 16.3.7. Etika eta Jokabide Kodea betetzen dela egiaztatzeko Txostena egingo du urtero.
- 16.3.8. Etika publikoaren alorrean erakundeen hobekuntza helburu duten hedapen- eta prestakuntza-programak zein berariazko tailerrak egitea sustatzea, dagozkien instantzietan.
- 16.3.9. Lantaldeak sortu ahal izango ditu gai zehatzak aztertzeko, azterkizun dituzten gaietan aldaketak ala gomendioak egin ahal izango dizkiotenak.

16.4. Etika Betetzearen Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez. Deialdia lehendakariak aginduta egingo da. Dena dela, bildu egin beharko da kontsultarik, salaketarik edo kexarik jarriz gero.

Aurrekoa dena dela, beharrezko diren aparteko bilkurak egin ahal izango dira, erabaki behar diren gaien izaerak edo urgentziak hala eskatzen badute. Kasu honetan, batzordekideak bertan daudela edo bide telematikoak erabiliz egin ahal izango dira batzarrak.

16.5. Urtean behin, esan bezala, txosten bat egingo da Etika eta Jokabide Kodea betetzen dela ikuskatzeko. Txostenean gomendioak eman ahal izango dira eta Administrazio Kontseiluari aurkeztuko zaio.

16.6. Txostenean jasotako ondorio eta gomendioak Gobernu Korporatiboaren txostenean sar daitezke.

16.7. Etika Betetzearen Batzordeko kideak, beren jardunean ezagutu ditzaketen informazio oro isilpean gordetzera behartuta daude, eta bereziki aztertutako gertakariei buruz, ikerketen eta eztabaiden edukari eta hartutako erabakiei buruz eta izaera pertsonaleko datu pribatuei buruz. Halaber, ez dute egingo aipatutako guztiari buruzko inolako adierazpen publiko zein pribaturik, ez eta Batzordea jorratzen diharduen gairi buruz.

16.8. Etika Betetzearen Batzordeko kideak Kode honetan aurreikusitako kausaren batean sartuta badaude, BIC ARABAren erantzukizun penala izan dezakeen delituren bategatik formalki akusatuta badaude, ebazpen judizial edo administratibo baten bidez edozein sozietate mota administratzeko edo ordezkatzeko ezgaituta baldin badaude, Aldendu beharko dira eta honako hau izango da bere ordezkapena egiteko araubidea:

16.8.1. Kausa baten eraginpean baldin badago Betetzearen Batzordeko presidentea, Administrazio Kontseiluko nagusienak ordezkaturiko du.

- 16.8.2. Kausa baten eraginpean baldin badago Batzorde horretako kapitalaren beste ordezkaria, ordezkatu beharreko kapitala duen Administrazio Kontseiluko beste kide batek ordezkatuko du.
- 16.8.3. Kausa baten eraginpean baldin badago zuzendaria, Administrazio Kontseiluko gazteenak ordezkatuko du, betiere ez bada Betetzearen Batzordeko kide.
- 16.9. Ordezkatze-araubide bera jaso da kideren bat gaixorik jartzen bada, ezgaitzen bada, kaleratzen badute edo enplegutik aldentzen badute, baita hiltzen bada ere.
- 16.10. Etika Betetzearen Batzordeko kideek ezin dituzte euren funtzioak eskuordetu kide ez den pertsona batengan.
- 16.11. Etika Betetzearen Batzordeko batzarretan hartutako akordioak, barneko aktetan transkribatuko dira.
- 16.12. Etika Betetzearen Batzordeko kideek arauetan zein aplikagarri den jurisprudentzian egiten diren aldaketen berri izan beharko dute.

17. KODEA ZABALTZEA.

- 17.1. Kodea BIC ARABAko pertsona guztiengan aplikatu behar denez, guztiek ezagutu behar dute. BIC ARABAK erabili ohi dituen hedabideen bidez zabalduko da kodea eta horren edukia. Gainera, kontsultarako ere eskura daiteke, beste interes-talde batzuek ezagutu dezaten.
- 17.2. Kode honen zabalkundea bideratuko da idatzizko argitalpenen, eskuliburuen, bideoen eta azalpenak emateko liburuxken bitartez, bai eta BIC ARABAren webaren bidez.

17.3. Kodearen hartzaileentzako trebakuntza-programak egingo dira.

18. NORBERAK BERE EGITEA.

18.1. BIC ARABAko pertsona guztiek, zereginak betetzen badituzte, banaka atxiki beharko dute Kode honen eduki osoa, 15 eguneko epean, gehienez ere, BIC ARABAren webean argitaratutako egunetik. Ez atxikitzeak kargutik berehala kentzea ekarriko du. Ez atxikitzeak kargutik berehala kentzea ekarriko du.

18.2. Kode honek helburu dituen BIC ARABAko langile berriak izendatzen direnean, tresna honen eduki osoa banaka atxiki beharko dute nahitaez kargua hartu aurretik.

18.3. Kodea banaka atxikitzearen ondorioz, BIC ARABAko pertsonak beren gain hartzen dute beren bizitza publiko zein pribatuan betiere Kodean berariaz adierazitako balio, printzipio eta jokabideen edukiarekin, asmoarekin eta espirituekin bat datozen jokabide eta portaerak izateko betebeharra eta obligazioa.

18.4. Halaber, banaka atxikitzearen ondorioz beren gain hartzen dute dimisioa aurkeztu eta kargua uzteko obligazioa, Kode honetan ezarritako jokabideren bat betetzen ez den kasuetan neurri hori aurreikusita baldin badago.

18.5. Horrez gain, Etika eta Jokabide Kodea ez betetzearen ondorioz, barneko arauekin eta lan-arloko legeekin ados jar daitezkeen diziplina-zigorak ezarri ahal izango dira, langilea kaleratzekoa barne.

18.6. Kodearen edukiarekin bat egiteko sistema. BIC ARABAn sartu baino lehen, pertsona guztiek kodearen edukiarekin ados daudela adieraziko duen aitortpena egingo dute. BIC ARABAn lehendik dauden kideek ale bat jasoko dute aztertze eta, hala badagokie, edukiari atxikitze prozedura burutuko dute.

VI. KAPITULUA

ESKULIBURUA BERRIKUSTEA

1. ESKULIBURUA BERRIKUSTEA

1.1. Eskuliburua berrikusi eta eguneratuko da, eta beharrezkoa balitz aldatuko da, ondoko kasu hauetan:

1.1.1. BIC ARABAren antolaketa-sisteman aldaketa garrantzitsuak egiten baldin badira.

1.1.2. Legedian edo jurisprudenzian aldaketa erabakigarriak egiten baldin badira.

1.1.3. BIC ARABAn eragina duen arau-hauste garrantzitsu bat egiten denean.

1.2. Eskuliburua lau urtean behin berrikusiko da, aurreko epigrafean xedatutako alde batera utzita.